

**25**  
**hh**  
hik hasi **URTE**

### KOOPHEZI-i

Eskolako jolastokia, auzoko plaza  
Beldur Barik programaren eragina  
Joxe Mari Auzmendi hezkuntza beka  
Zer da praktika filosofikoa?  
Gernikako Bakearen Museoa  
Joxemari Agirretxe 'Porrotx'

2021



“ Biziraupenean egon beharrean, bizitzen egotera  
garamatza pedagogia sistemikoak ”

# PEDAGOGIA SISTEMIKOA

# Oporretako irakurgai gomendatuak

## Lehenengo maila




84-1360-050-2

Txomintxo eta Perutxo lehendakari (Batela)



84-1360-081-2

Nire ama Olentzero da (Batela)



84-9027-973-X

Astindu gorputzak (Marimatrakak)



84-9027-912-8

Gurdi handia (Batela)

## Bigarren maila



84-9027-315-4

Ez daukat irudimenik, eta zer (Eta zer)




84-9027-196-8

Txantxa gutxi! (Marimatrakak)



84-1360-024-3

Utikan, birusa (Marimatrakak)



84-9027-894-6

Torlojuak (Kuku)

## Hirugarren maila



84-9027-422-3

Baiona ttipiko piratak (Lur eta Amets)



84-9027-530-0

Zazpi kaleetako eskola (Lur eta Amets)



84-9027-910-1

Puka eta Mateoren oilarra (Xaguxar)



84-9027-870-9

Martzelo itsua (Xaguxar)

## Laugarren maila



84-9027-974-8

Besarkada bat, beharbada (Xaguxar)



84-1360-070-7

Munstro txikiak. Neskaotsok ilerik ez balu? (Xaguxar)



84-1360-069-3

Kokonutt (Xaguxar)



84-9027-483-5

BAT Bullyingaren Aurkako Taldea (BAT)

## Bostgarren maila



84-9027-924-1

Munstro txikiak - frankixoren maskota (Xaguxar)



84-9027-195-X

Valerium Tremens eta Traganarrua (Valerium Tremens)



84-9027-501-7


BAT ziberbullyin-aren aurka (BAT)



84-9027-971-3


Etxetxorotarrak (Xaguxar)

## Seigarren maila



84-1360-052-9

Azken dantza New Yorken (Taupada)



84-1360-048-0

Nevermore (Taupada)



84-9027-871-7

Seme bakarra izan nahi dut (Xaguxar)



84-9027-678-1

Eskularru beltzak (Xaguxar)

**elkar**

# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## KOOPHEZI-i

Oxel Azkaratek Pertsona Kooperatiboaren definizio bat eta ezaugarritze bat eraiki du, eta profilaren garapenerako eta ebaluaziorako aldagai gakoak identifikatu eta zehaztu ditu bere tesian. Definizio eta ezaugarritze horretan oinarrituta Pertsona Kooperatiboaren profila ikasle gazteetan (16-22 urte) neurtzeko tresna psikometriko bat sortu du eta dagoeneko Gipuzkoako hainbat ikastetxetan pasatzen ari dira.

ELKARRIZKETA / 16

## LARRAITZ MENDIZABAL- AITZIBER ESNAOLA

Irailetik aitzin pedagogia sistemikoaren formazioa eskainiko dute Hik Hasirekin. Egunerokoan parte hartzen dugun sistemetan dagokigun lekuan kokatu ahal izateko eta elkarreraginean jarduteko baliabideak eskainiko dizkiete irakasleei. Behatzailearen eta testuinguruaren garrantziaz ohartu eta sistemaren ordenak izango dituzte bidelagun.

**Argitaratzailea:** XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

**Erredakzioa:** Mikel Agirrezabala, Ainhoa Azpiroz eta Ainara Gorostitxu.

**Erredakzio batzordea:** Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

**Aholkulariak:** Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi,

Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.

**Administrazioa:** Uxue Ugartemendia.

**Elkarrizketako argazkiak:** Foku.

**Diseinua:** Grafik.

**Maketazioa:** Xangorin.

**Inprimategia:** ANTZA S.A.L

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2021-06-14).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiek.

5 EDITORIALA

Gazteen atzetik, jauzi egiteko garaia da

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

KOOPHEZI-i  
Ikasle Kooperatiboaren profila neurtzen

16 ELKARRIZKETA

LARRAITZ MENDIZABAL -  
AITZIBER ESNAOLA

“Biziraupenean egon beharrea, bizitzen egotera garamatza pedagogia sistemikoak”

24 ESPERIENTZIAK

Eskolako jolastokia, auzoko plaza

28 EKARPENAK 1

Beldur barik programaren eragina gazteen berdintasunaren aldeko jarreran

32 EKARPENAK 2

Joxe Mari Auzmendi hezkuntza beka

36 GALDEIDAZU

MIREN CAMISON  
Zer da praktika filosofikoa eta zer ekarpen egin diezaguke?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Gernikako Bakearen Museoa

42 ATZEKO ATETIK

Joxemari Agirretxe ‘Porrotx’

Oporrak!!!  
Hondartza mendia igerilekua,  
eguzkia eta udalekuak  
begi bistan!

Ez ditu inork  
guk baino gehiago  
merez!

Jaso  
aingura!



Boga  
hurrengo abenturara  
haurrok!!!

# Gazteen atzetik, jauzia egiteko garaia da

## editoriala

EUSKARAREN ALORREAN ADOSTASUN ETA DEBEKU EGUNA IZAN DUGU EKAINAREN 19A. BEHARREZKOA DA HIZKUNTZA-POLITIKETAN JAUZIA EGITEA. URGENTZIAZKOA, HEZKUNTZAN.

**A**dostasuna eta debekua. Aurkia eta ifrentzua. 2021eko ekainaren 19an Euskalgintzaren Kontseiluak hizkuntza-politiketan eragiteko erdietsi duen adostasun soziala irudikatu zuen Donostiako Kursaal aretoan. Euskal Herriko alor ugaritako ia ehun eragilerekin —hezkuntza komunitateko eragile asko eta askorekin— adostu eta onartutako dokumentua aurkeztu zuen. Baikortasunerako ekitaldia izan zen. Dotore eta gogoangarria. Euskararen erabilera erosorako baldintzak sortzea du helburu prozesuak eta horretarako hizkuntza-eskubideak eremu guztietan bermatu beharko direla ohartarazi zuen Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiak: “Hala nahi duen edonork ez dezan euskara erabiltzeko inolako eragozpenik izan”. Prozesu emankor baten ondoren hizkuntza-politiketan jauzia egiteko garaia dela aldarrikatu zuen Kontseiluak.

Jauzia egiteko prest daude herritarrak, baita eragileak ere. Baina, zapla, ifrentzua: egun eta ordu berean Frantziatik etorri zen albistea: hizkuntza-eskubideetan aurrera egiteko azeleragailu izan behar zuen Molac legeak are atzerago utzi du euskarazko irakaskuntza Ipar Euskal Herrian, Seaskaren beraren eredu, hain sendotua, hain emankorra, hain aitortua, kolpatzera etorri baita Frantziako Konstituzio Kontseiluak berretsi duen debekua. Garaipen historikotzat



ospatu genuen eta zaplazteko itzela bihurtu da.

Tamalez, ohituak gaude. Euri asko egiten du euskararen lurretan. Frantziakoa bezalako ekaitza batzuetan, trumoi eta tximista. Zirimiri gisa beste batzuetan. Ziertzoak jotzen du tarteka. Kasu, duela hilabete Nafarroetik etorri zen albisteari: Iruñeko haur eskoletako 165 familia euskarazko lerrorik gabe utzi ditu Iruñeko Udalak datorren ikasturterako. Euskaraz ikasteko aukera ukatuko die haurrei hizkuntzaz jabetzeko hain garrantzitsua den etapan, estrategikoki, disimulu gutxirekin, doakabe. Eskutik du Udalak Maria Txibite lehendakaria: euskara ez da, ezta meritu gisa baloratuko Nafarroako eremu ugaritan, ingelesa, frantsesa eta alemana meritu badira ere lurralde osoko lan deialdietan. Atergabe ari dira euskararen kontra.

Jauzia egiteko garaia da.

Bada adostasunik. Eta bada itxaropenik. Beste behin Iparraldetik eta gazteek eman digute lezioa. Jauzia egin dute: Bernat Etxepare lizeoko ikasle andana batek euskaraz erantzun du Filosofiako azterketa, jakitun euren lanak ez dituztela aintzat hartuko eta ondorioak asumituta. Eredu dira. Eta baita, euskaraz etsaminatzearen alde, brebeta zuzentzeari uko egin dioten kolegioetako eta lizeoetako irakasleak ere.

Urgentziazkoa da hizkuntza-politiketan jauzia egitea.

**“Azken ikerketa batek dio gazteei naturala zaiela gehienetan espainola hitz egitea, ez baitakite euskara eta bere kultura etengabe jazarri, menostu, desagerrarazi nahi izan eta dutenik, ez baitute euskararen autokontzientzian ariketarik egin, gramatikatik eta morfosintaxitik haratago inork ez baitie euskararen historia irakatsi, ez etxean, ez ikastetxean, ez Interneten”**

Gotzon Barandiaran



## 'BATUZ ALDATU' HIZKUNTZA-POLITIKETAN JAUZIA EGITEKO DOKUMENTUA AURKEZTU DU EUSKARAREN KONTSEILUAK



*Batuz aldatu* izena hartuko du hemendik aurrera Euskalgintzaren Kontseiluak hizkuntza-politiketan eragiteko adostasun sozialen ekimenak, Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbaok esan bezala, "hizkuntza-politiketan jauzia egiteko garaia zela esan genuen duela hilabete batzuk, eta jauzia egitera goaz". Horrekin batera, Kontseiluko eleduak 2016ko abenduaren 16an Kursaalera Gaur Berria Aretoan bertan Europako hogeita hamar hizkuntza-komunitatetako ehundik gora eragilerek aurkeztutako Hizkuntz Eskubideak Bermatzeko Protokoloa izan zuen gogoan: "Orduko uzta da gaur aurkeztu duguna, ardatz berdinetan eraikia izan baita. Orduan bezala, gaur ere, gizarte-kohesioa bermatzea helburu, hizkuntza-politiketan eragiteko adostasuna aurkeztu dugu", esan zuen larunbatean Kursaalera.

*Batuz aldatu* izeneko proposamena ardatzen duten printzipioak zerrendatu zituzten aurkezpenean: bereizkeriari aurre egiteko eta elkarbizitzan sakontzeko hizkuntza-eskubideak errespetatzeko beharra, hizkuntza-politikaren zeharkako izaera, normalizazio-prozesuaren izaera soziopolitikoa eta progresiboa... Halaber, hizkuntza-politika Euskal Herriko hizkuntza aniztasuna aintzat hartua garatu behar dela azaldu zuten.

Ondoren, etorkizuneko agertokirako helburu nagusia aurkeztu zuten: euskararen erabilera erosoak baldintzak sortzea. Horretarako, hizkuntza-eskubideak eremu guztietan bermatu beharko direla adierazi zuten, hala nahi duen edonork ez dezan euskara erabiltzeko inolako eragozpenik esan. Horretara iristeko hizkuntza-politikek hartu beharreko norabideak azaldu zituzten. Batetik, hizkuntzaren ezagutzaren unibertsalizazioa bultzatu beharko dela adierazi zuten, herritar guztiek euskaraz aritzeko gaitasun egokia izan dezaten. Bestetik, euskara eroso erabiltzeko eremuak sortu, garatu eta elkarlotu beharko direla adierazi zuten, hala nahi duen edonork ez dezan izan euskara erabiltzeko inolako eragozpenik. Azkenik, eragileok epe laburrean hartutako konpromisoak azaldu zituzten.

## LANBIDE HEZIKETAN EUSKARAZKO ESKAINTZA OSO UURIA DA

Hizkuntza Eskubideen Behatokiak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lanbide Heziketako eskaintza aztertu ondoren, ondorio garbia atera du: Oinarrizko Lanbide Heziketan zenbait eskualdetan ez dago D ereduko inolako eskaintzarik eta dagoen kasuetan urria da. Erdi eta Goi Mailako Lanbide Heziketan eskaintza "zabalagoa" da Behatokiaren hitzetan, "baina ez da nahikoa. Gure ustez, eskaintza ezin da egin eskaeraren eta egoera linguistikoaren arabera soilik egin; euskara sustatu, hizkuntza-eskubideak bermatu eta egoera irauli nahi badugu, eskaintza orokortua, unibertsala eta berdintasunean oinarritua egin behar da".

## SKOLAERI BURUZKO FORU DEKRETUA IRAILERAKO PREST IZANEN DA

Skolae hezkidetzeta programari lege babesa emango dion foru dekretua irailerako prest edukitzea espero du Nafarroako Gobernuak. Carlos Gimeno Hezkuntza kontseilariak ziurtatu zuen foru dekretuak segurtasun juridikoa emango diola Skolae, eta erantsi zuen jada lanean ari direla programa sare publikoan eta itunpekoan arautzeko.

# HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

## MURGILTZE EREDUAK ZALANTZAN JARRAITZEN DU IPARRALDEKO ESKOLA PUBLIKOETAN, IKASTOLETAN ETA KRISTAU ESKOLETAN



Hizkuntza gutxien aldeko legea dela-eta, Frantziako Konstituzio Kontseiluaren erabakiak nahasmena eragiten ari dira Iparraldean nahiz Frantzia osoan. Azken zehaztapenen arabera, eskola publikoak, ikastolak eta hizkuntza gutxituak murgiltze ereduen bidez irakasten dituzten gainerako itunpeko eskola pribatuak Frantziako Konstituzioaren kontrakoak dira. Ekainaren 16an egindako komentario baten arabera, adierazi zuen "irakaskuntza publikoan bakarrik" zela konstituzioaren kontrakoa. Aldiz, geroztik aipamena moldatu eta kontzeptu berri batekin ordezkatu du: "Irakaskuntza zerbitzu publikoa" formulazioa. Eta kontzeptu horren barnean sartzen ditu eskola publikoaz gain ikastolak eta itunpeko eskolak.

Ebazpena hitzez hitz hartuta, ikastolak eta gisa bereko itunpeko eskolak Frantziako Konstituzioaren aurkakotzat jo daitezke, 1995ean Frantziako Estatuarekin izenpetutako hitzarmenak zalantzan jarrita. Azken urteetan eskola publikoan eta pribatu katolikoan abian jarri diren euskarazko irakaskuntza elebakarraren esperimentazioak ere kolokan geldituko lirateke.

Euskal Hirigune Elkargoak honakoa adierazi du: "Konstituzio Kontseiluaren erabakiak kalte handia egiten dio Ipar Euskal Herrian adostasun politiko eta sozial handiaren garatu den ereduari". Horrez gain, heldu den ikasturterako aurreikusiak ziren euskarazko irakaskuntza elebakarraren bost esperimentazioak onar ditzala eskatu diote Frantziako Estatuari: Larraineko eta Idauze-Mendiko (Zuberoa) eskola publikoetan, Ortzaizeko (Nafarroa Beherea) eskola publikoan, Aiherrako (Nafarroa Beherea) pribatu katolikoan eta Bardozoko (Lapurdi) ikastolan. Ekainaren erdialdean Ortzaizeko, Larraineko eta Idauze-Mendiko eskolak okupatu zituzten gurasoek eta hautetsiek.

## BREBETA ETA BAXOAKO AZTERKETAK EUSKARAZ NAHI DITUZTE IKASLEEK

Seaskako ikasleek euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatu dute ikasturte hondarrean, bai Baxoa egin dutenek eta baita Brebeta egin dutenek ere. Bernat Etxepare lizeoko ikasle talde batek Filosofiako azterketa euskaraz egitea erabaki zuen. Izan ere, ikasketa guztiak euskaraz egin arren, baxoko Historia-Geografiako proba baizik ez dute euskaraz egin ahal. 2016an Matematikako proba ere euskaraz egiteko aukera eman zien Frantziako Hezkuntza Ministerioak, baina lizeoetako erreformaren ondorioz azterketak pasatzeko modua aldatu zuten, eta kontrol jarraikiari pisu handiagoa eman zien.

Egoera horretan, ikasle talde batek desobedientziarako pausoa eman du: euskaraz ikasteko nahia azaldu dute haien kopietan, eta frantsesez eta euskaraz egin dute azterketa osoa. Ikasleek aditzera eman dutenez, "baxoa frantsesez egiteko, urtean zehar hainbat gai frantsesez landu behar ditugu, eta horrek euskaraz ikasteko hautua oztopatzen du".

Gauza bera aldarrikatu dute Seaskako kolegioetako guraso, irakasle eta ikasleek: brebetaren azterketa euskaraz egiteko eskubidea. Kolegioetako eta lizeoetako irakasle talde batek azterketak zuzentzeari uko egin dio azterketak euskaraz pasatzeko eskubidea bermatzen den arte.

# HIZPIDE IZANGO DA

## IKASTURTE OSOKO FORMAZIO BERRI BAT ESKAINIKO DU HIK HASIK: 'PEDAGOGIA SISTEMIKOAN HEZI ETA BIZI'




**Hik Hasik** prest du 2021-2022 ikasturteko formazioa eta orain arteko hiru formazioez gain —0-6 aditu titulua, Psikomotrizitate erlazionala eta Jirafaren hizkuntza, KEB— beste berri bat eskainiko du: *Pedagogia sistemikoan hezi eta bizi*. Pedagogia sistemikoan masterra duten eta **Hik Hasiren** Udako Topaketatan gai horren gaineko ikastaroak eman izan dituzten Larraitz Mendizabal eta Aitziber Esnaola arduraduko dira formazioa emateaz.

Formazioan pedagogia sistemikoaren oinarrietatik abiatu dira. Pedagogia sistemikoak, euskal testuinguru konkretu bateko kide eta subjektu izanik, gure egunerokoan parte hartzen dugun sistema orotan dagokigun lekuan kokatu ahal izateko eta elkarreraginean jarduteko baliabideak eskaintzen dizkigu. Horretarako, behatzailearen eta testuinguruaren garrantziaz ohartu eta sistema orotan dauden sistemaren ordenak izango dira bidelagun: kidetza; autoritatea eta lekua; eta hartu-emanaren arteko oreka. Horiek egikaritzeko beharrezkoak diren “baliabide pedagogiko sistemikoen” (elkarrizketak, panpinak, marrazkiak, ipuinak eta genograma) teoria ezagutzeaz gain, baliabide sistemiko horietan trebatzeko aukera emango du formazioak.

Norberaren hezkuntza jardun profesionalean zehar identifikatu daitezkeen zailtasunen eta gatazken kontzientzia hartzeko elkargune bat sortu nahi da formazioan. Bertan buruturiko gainbegiratze mugimendu sistemikoei esker, begirada sistemikoan sakondu eta soluzio bideak identifikatuko dira. Gure bizitzan zein jardun profesionalean sistemaren ordenak oinarri hartuz dagokigun lekua-ren kontzientzia hartzea izango da formazioaren xedea eta bertatik, erabakiak hartzeko eta gauzatzeko ahalduntzea.

Formazioari buruzko informazio gehiago [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)-en.

## ESKAINITZA ZABALA DAGO UDAKO IKASTAROETAN



Ikasturtea amaituagatik, udan ikastaro ugari egiteko aukera izanen da, urtero bezala. Norberaren esparru profesionalarekin, interes pertsonalekin edo orotariko jakin-minarekin erlazionatutako ikastaroak topa daitezke. **Hik Hasik** eta UEUk euskaraz eskaintzen dituzte. **Hik Hasiren**ak uztailaren 5ean, 6an eta 7an izango dira Donostian, —[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)— eta UEUrenak ekainaren 25etik uztailaren 16ra bitartean Iruñean, Baionan, Eibarren, Usurbilen eta Aiaraldea Ekintzen Faktorian —[www.ueu.eus](http://www.ueu.eus)—. EUHUko udako ikastaroen barruan euskaraz, gaztelaniaz zein ingelesez eskaintzen dira. Ekainean hasita daude eta iraila bitartean luzatuko da eskaintza Donostian —[www.uik.eus/ueu](http://www.uik.eus/ueu)—.





# XAPOKETAN

KARTA-JOKOA



## Ezagutu Euskal Herriko animaliak!

Euskal Herriko lurralde banatako **zazpi ekosistema** eta **42 animalia** ezagutuko ditugu. Karta hauekin **5 jolas ezberdin** egin daitezke: familia jolasa, puzzlea, ezkutaketa eta memoria eta azkartasun jokoak.



**Edukiak**  
Iñaki Sanz Azkue  
Biologoa

**Ikuspegi pedagogikoa**  
Lore Erriondo  
EHUko irakaslea

**Marrazkiak**  
Eñaut Airtzaguen

AZOKAN SALGAI!  
15€\*



POSTERRA SALGAI!  
6€\*



Oxel Azkaratek Pertsona Kooperatiboaren definizio bat eta ezaugarritze bat eraiki du, eta profilaren garapenerako eta ebaluaziorako aldagai gakoak identifikatu eta zehaztu ditu, hezkuntza ikuspegi batetik, Teoria Funtsatua metodologiaren urratsak jarraituta, bere tesian. Definizio eta ezaugarritze horretan oinarrituta Pertsona Kooperatiboaren profila ikasle gazteetan (16-22 urte) neurtzeko tresna bat sortu du, froga psikometrikoen sorkuntzarako nazioartean ezarrita dauden eredu estandarrak markatzen dituen irizpideak jarraituta. Dagoeneko Gipuzkoako hainbat ikastetxetan pasatzen ari dira KOOPHEZI-i testa, gerora Azkaratek eta MUko HUHEZI fakultateko Eragin ikerketa-taldeko ikerlariak beste hainbat profil neurtzeko egin dituzten azterketa psikometrikoekin batera.

# GAIA: KOOPHEZI-i

## IKASLE KOOPERATIBOAREN PROFILA NEURTZEN

ikaslea erdigunean. Erraza da hori idaztea edo esatea. Gaitzagoa da hezkuntza proiektu batean benetan ikaslea erdigunean jartzea. Baina asko dira eraldaketa prozesu horretan murgilduta dauden hezkuntza zentroak Euskal Herrian. Pedagogikoki eta metodologikoki ez ezik, arkitetnikoki eta organizatiboki ikaslea erdigunean jartzeko misioa ezarri diotenak euren buruari. Horietako bat da Arrasateko Arizmendi ikastola. Hamarkada bat da dagoeneko hormak bota eta espaziala baino sakonagoa den eraldaketa hasi zutenetik. Hain zuzen ere, ikaslea erdigunera ekarri duenetik dagoeneko ibilbidea egin duen zentro horren hezkuntza-proiektuaren garapena aztertzea izan zen Oxel Azkarate (Arrasate, 1982) Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko irakasle eta ikerlariaren helburua. Baina, zer-nola ebalua eta kuantifika daiteke ikaslea erdigunean ezartzeak dakarren eraldaketa? “Ikusi genuen ikaslea erdigunean jartzen duten eraldaketa prozesu horietan ikasleen irteera-profil horren neurketarako erremintarik ez zegoela”. Bada, hastapenean buruan zeukan ikerketa bigarren ikerketa baterako utzi, eta ikasle-profilaren neurketarako erreminta prestatzeari ekin zion. Arizmendin

ez ezik, hainbat berrikuntza-prozesutan erdigunean ezarritako ikasle-profila kooperazioari lotua zegoela ikusirik, aldagai horri tiraka, Pertsona Kooperatiboaren profila neurtzeko tresna ondu du bere tesian: *Pertsona Kooperatiboa profila ikasle gazteetan neurtzeko KOOPHEZI-i tresnaren sorkuntza eta balioztatzea* izenekoan.

Ikasle kooperatiboaren profila neurtu eta ebaluatzeko test psikometriko bat sortu eta balioztatu du tesiaren bitartez. Eta dagoeneko Gipuzkoako ikastetxe ugarian baliatu dute euren ikasle-profila aztertzeko. Tresnak berak ondoren emango dituen ondorioez gain, Pertsona Kooperatiboa konstruktuen oinarri teorikoak finkatzea eta garapenerako gakoak identifikatzea izan da Azkarateren ekarpen garrantzitsuetako bat. Pertsona Kooperatiboa kontzeptua berria izan ez arren, Azkaratek egindako literatura errebisioan zein berau neurtzeko tresnaren baten existentziaren bilaketa-lanean, ez baita aurkitu frogatutako teoriarik (definiziorik) ezta neurketarako tresnarik ere. “Lehenengo definizioa zehaztu behar genuen. Zertaz ari gara *persona kooperatiboa*-z ari garenean? Pertsona Kooperatiboaren garapenari loturiko 14

## GAIA: KOOPHEZI-i

Ikasle kooperatiboaren profila neurtzen

gako garrantzitsu aintzat harturik, definizio bat eraiki dugu: Pertsona Kooperatiboa da gizakia eta jendartea kontuan hartzen dituen balio eta jarrera indibidualak, kooperatiboak eta komunitarioak dituen; burujabea, elkar-kidetzan diharduena eta ekintzaile sozio-komunitarioa: elkartasunean eta berrikuntzan oinarritutako eraldaketa sozialaren alde pentsatzen duena eta egiten duena”. Hurrengoak dira, Azkarateren ikerketan identifikatutako eta Pertsona Kooperatiboa ezaugarritzen duten balio eta jarrera indibidualak, kooperatiboak eta komunitarioak: “Eskuzabaltasuna, elkartasuna, lan-kidetzeta, partaidetza, justizia soziala, aukera berdintasuna, duintasuna, demokrazia, ekitatea, gardentasuna, errespetua, leialtasuna, umiltasuna, berdintasuna, askatasuna, zintzotasuna, aniztasuna, ongizatea, konfiantza, erantzukizun soziala, berrikuntza soziala, ekintzailertza soziala, kooperazioa eta konpromiso soziala...”. Balio eta jarrera indibidual, kooperatibo eta komunitarioak dira, beraz, pertsona kooperatiboan zentralitatea duten ezaugarriak, haren pentsamendua eta portaera gidatzen dutenak. Balio eta jarrera horien erabileran dago gakoa, Azkarateren arabera: “Esate baterako, banakako eta taldeko erabakiak hartzea, taldean edota taldeen artean lan egitea, harremanak eraikitzea, aldagetak bideratzean edota misio eta ikuspegi sozio-komunitarioa eraikitzean erronka indibiduali, erakundekoei eta komunitarioei erantzutea”.

Eraiki den Pertsona Kooperatiboaren definizioaren eta ezaugarritzearen baitan, landutako oinarri teorikoak aintzat hartuta eta hainbat diziplinatako zortzi ikerlariren kontrastearekin, 22 aldagai aukeratu dira tresna ezaugarritzeko: auto-efikazia, autonomia maila, moral barneratua, beharrian kognitiboa, helburuen interdependentzia, indibidualismo kooperatiboa, eragin lidergoa, enpatia kognitiboa,

komunikazio asertiboa, justizia soziala, onginahia, elkartasuna, ekintzaile soziala, gizakiaren ikuspegi positiboa, nartzizismoa, idiozentrismoa, gizakiaren ikuspegi negatiboa, berekoitasuna, alozentrismoa, gatazkak ekiditea, identitate soziala eta talde eragina.

KOOPHEZI-i Pertsona Kooperatiboa profila ikasle gazteetan neurtzeko tresna 17 dimentsio eta 65 itemekin osatutako galdera sorta da, Pertsona Kooperatiboa profila aldagai anitzeko konstruktua moduan ulertzen duena. Ikasleen autopertzepzioan oinarritzen da. “Erdigunean jarri genuen ikasleen euren hitza balioan jartzea. Pertsona Kooperatiboaren alderdi guztien garapena adin txikietan neurtzea zaila denez, etapan bukaerara eraman genuen ikerketa”. Beraz, Batxilergorako, Lanbide Heziketarako eta Unibertsitateko Graduetarako baliagarria den tresna da eta hezkuntza erakundeetako hezkuntza eskaintzek profila kooperatiboan duten eragina neurtzen du. Gisa honetan, hezkuntza eraldaketaren norabidea neurtzeko tresna garatu du, hezkuntza erakundeen misioa eta hezkuntza zentroetako prozesu hezitzaileetan oinarrituta ikasleen irteera-profila neurtzen duena. Tresnaren balioztatzea bi ikasturtetan zehar jasotako laginarekin osatu da. Guztira 16 eta 22 urte bitarteko 2.290 gaztez osatutako lagina erabili da tresnaren ezaugarri psikometrikoen azterketarako eta baremazioarako.

Pertsona Kooperatiboa profila neurtzeko erreminta honek, batetik, XXI. mendeko jendarte testuingururako erronka indibidual zein kolektiboek gizarte eraldaketaren eta berrikuntzaren ikuspegitik erantzungo dieten pertsonen zer-nolako ezaugarriak izan behar dituzten arakutzen lagundu nahi du, eta bestetik, hezkuntza-eraldaketaren eta berrikuntzaren perspektibarekin aztertzen ditu XXI. menderako pertsonen



Arizmendi ikastolako Almen guneko Batxilergoko ikasleak proiektu batean lanean.

behar dituzten profilak. “Pertsona Kooperatiboa profilarekin erlazionatzen diren balio horiek garrantzitsuak izan daitezke gazteen garapen pertsonal eta profesionalerako, bizitzarako. Adibidez: norbera izaten ikasteko, ikasten ikasteko, besteekin kooperazioan harreman positiboak eraikitzeke eta elkartasunean eta berrikuntzan oinarritutako mundu ikuskera eraldatzaile baten alde pentsatzeko eta egiteko. Eta, era berean, komunitatearen garapen humano eta jasangarri baterako”. Azkaratek ikuspegi horretatik berrikusi ditu Euskal Herriko hainbat proiektu pedagogikotan garatzen ari diren ikasleen ezaugarriak eta profilak. “Erronka eta eredu berrietarako pertsonak hezi behar ditu gaurko eskolak, hala nola, globalizazioak, digitalizazioak, kolapso ekologikoak, klima-aldaketak, indibidualizazioak, migrazioak eta askotariko krisiak (COVID-19a barne) ekarri dituen aldaketetarako. Egoera honi gehitu behar zaio jendarte modernoaren ondorioz sortutako pertsona berri bat: konpromiso soziala kudeatzen ez dakien eta ezkututzen den gizaki bakartia, lankidetzarako gogoia galdu duena eta ni ez-kooperatzailean bihurtu dena”. Horiek guztiek, Azkarateren arabera, norbanako, erakunde eta komunitate desberdinen artean lankidetzan oinarritutako eraldaketa edota berrikuntza soziala eskatzen dute, “eta horretarako, ahots desberdinek aipatzen dute humanoagoak edota demokratikoagoak diren balioen beharra”. Bide horretan, uste du, lagungarria izan daitekeela Pertsona Kooperatiboa profilarekin erlazionatzen diren balioak, jarrerak nahiz konpetentziak balioan jartzea eta horiek garatzeko hezkuntza estrategiak ahalbidetzea. Egungo egoeran eta etorkizunekoan, beste gizarte eredu baterantza eraldaketa egiteko, nahitaezkoa izango da, Azkarateren arabera, “balio pertsonalez gain balio sozialak indartzea, eta balio horiek gizakion ongizaterako iturri bihurtzea”.

## Argazkiak eta ondorioak

Hastapenetan tresna Arizmendi ikastolaren eraldaketa-prozesuari loturik sortu bada ere, Azkarateren arabera, tresna antzeko eraldaketa pedagogiko, metodologiko eta organizatiboetan diharduten ikastetxeetan erabiltzeko baliagarria da, garapen jasangarrietarako 2030eko helburuei loturiko testuinguruetan kokatzen baitu diseinatu duen tresna. “Eraldaketa-prozesuetan zentro bakoitzaren hezkuntza misioa ber-definitzen ari dira garatu nahi den pertsona profila (ikasle profila) misioarekin harremanetan ezaugarrituta. Ikasleen profil horiek zehazten hasterakoan nahiz kooperazioaren aldagaia aztertzerakoan identifikatzen da Pertsona Kooperatiboa profila definitzeko, ezaugarritzeko eta neurtzeko (ebaluatzeko) beharra; urrats horiek lagunduko dutelakoan Pertsona Kooperatiboaren garapenerako eta ebaluaziorako gakoak identifikatzen”. Badago behar bat

pertsonaren balio humano eta demokratikoak diren horiek garatzeko, Azkarateren aburuz, eta horrekin bat egiten duten hezkuntza zentroentzako baliagarri ikusten du bai tresna eta baita Pertsona Kooperatiboaren garapena ere. “Guk ikusten dugu beste jokaera eta balio batzuk beharrezkoak direla eta horiek denek eskatzen dute pertsona bat erdigunean jartzea, beste balio batzuk dituen, pertsona kooperatiboaren definitzioarekin bat etorri ahal direnak eta eskatzen du, baita ere, desberdinen arteko lankidetzan aritzea, bai pertsona mailan baina baita talde mailan eta komunitate mailan ere”.

KOOPHEZI-i dagoeneko Gipuzkoako ikastetxe ugaritan pasatzen ari da Oxel Azkarate MUko HUHEZI fakultateko Eragin ikerketa-taldearekin. Lanbide Heziketako eta Batxilergoko lehen mailako ikasleei pasatzen diete testa. Pertsona Kooperatiboaren eskalan ez ezik, dagoeneko sormenari, ekintzailetasunari, malgutasunari edo emozioen erregulazioari eta beste ikasle profil batzuei loturiko testak ere garatu dituzte eta pasatzen dituzte. “Test psikometriko hauen emaitzekin, diagnostikoak eskaintzen dizkiegu ikastetxeetako zuzendaritzei. Euren hezkuntza zentroaren argazki bat, euren hezkuntza jardueren ikasleen autopertzepzioaren arabera, profil bakoitzean zer-nolako maila eskaintzen duten erakusten duten argazkiak egiten ari gara sare guztietako ikastetxeekin”. Ikastetxe bakoitzak, gisa horretan, bai Ikasle Kooperatiboa profilari lotuta, eta baita gerora garatu dituzten eskalei begira ere, urterik urte euren ikastetxeko ikasleek zer-nolako datuak ematen dituzten ikus dezakete, eta era berean, beste ikastetxeekiko konparaketa egin dezakete (emaitzak ezagunak dira, baina ikastetxeen izenak ez). “Emaitzen arabera, lagundu nahi dugu ikusten zein diren praktika eta metodologia onak eta bizipen eta esperientzia aproposak, eta horietan sakontzeko webinarrak eskaintzen zaizkie irakasleek euren ikasleen profilak garatzen laguntzeko”.

Ikasleen artean kooperatibotasuna sustatuko duten ereduak zein diren jakiteko argazkiak ari dira egiten, orain KOOPEHEZI-irekin eta esku artean dituzten beste test batzuekin. Baina emaitzak pixkanaka ikusiko direla dio Azkaratek: “Ikerketetan oinarritua zehaztu nahi dugu zer nolako testuinguru, elkar-ekintza eta esperientziak diren lagungarri ikaskuntza kooperatiboa sustatzeko”. Oraingoz, Azkaraten arabera, “tresnaren erabilerak posible egiten du Pertsona Kooperatiboarekin erlazionatutako dimentsioen diagnostikoa osatzea. Aukera ematen du hezkuntza eraldaketarako lagungarriak diren testuinguruak, esperientziak eta elkar-zaintzak diagnostiko horietan oinarrituta diseinatzeke, inplementatzeko eta ebaluatzeke unibertsitateko ikerlarien, hezkuntza zentroetako irakasleen eta komunitateko partaideen bidez”.

# Balio anitzeko argazkia

Mondragon unibertsitateko graduez gain, Lanbide Heziketako bederatzi zentrok eta Batxilergoko beste bederatzik hartu dute parte Oxel Azkaratek sortu duen KOOPHEZI-i test psikometrikoaren balioztatze-prozesuan. Horietako bi dira Arizmendi ikastola eta Arrasateko institutua. Pertsona Kooperatiboaren profilari garrantzia ematen diote ikastetxeek euren hezkuntza proiektuetan eta horregatik hartu dute parte bai balioztatze prozesuan eta baita ondoren KOOPHEZI-irekin batera pasa dituzten beste test psikometriko batzuetan ere.

Hezkuntza berrikuntzan eta ikaslea erdigunera ekartzeko prozesuetan murgilduta dauden zentroi argazki bat eskaintzen die KOOPHEZI-ik. Argazki hori hainbat gisatan balia dezakete gero zentroek. Arrasateko Institutuaren kasuan KOOPHEZI-ik eskaini dien diagnostikoak abiapuntua ezartzeko balioko die. “Izaera kooperatiboa gure proiektuaren parte da eta berau neurtzeko tresna ekarri zutenean gure ikasleen emaitzetan ikusi genuen euren buruarekiko pertzepzio ona zeukatela, eta nahiz eta Batxilergoan sistematikoki ez landu izaera kooperatiboa, emaitza onak izan genituela ikusi genuen eta profil hori modu sistematikoagoan lantzea komeni zela konturatu eta horretan ari gara”. Olatz Altzia Arrasateko institutuko zuzendariaren arabera, “lehendik egiten ditugun gauzak are kontzienteago egin behar ditugula ikusi genuen testari esker”. Testetatik ateratako informazioa mamitzen ari dira hurrengo ikasturteetan nola landu erabakitzeko eta hezkuntza proiektuan txertatzeko. Dagoeneko, aldaketan murgilduta dago ikastetxea, Batxilergoko lehenengo mailan

paradigma aldatzen hasi dira eta hainbat ikasgaitan proiektuak ari dira lanean. “Bartzelonako Unibertsitat Autònomako irakaslea den Andy Morodoren aholkularitzarekin ebaluazioa hezitzailea bihurtzen ari gara. Eta hortxe dago gakoa —Imanol Garmendia ikasketa buruaren arabera—, ebaluazioa aldatzen badugu, derrigor aldatu behar dugu prozesua, metodologian ez ezik, espazioen birpentsatzean ere aldaketa dakar”.

KOOPHEZI-iren lau edizioez gain, ikasle-profilaren beste eskala batzuk neurtzeko test gehiago etorri dira Azkarate kide duen HUHEZIKo Eragin ikerketa taldearen eskutik, eta Arrasateko institutuko irakasleak ere profil horiek lantzeko formatzen ari dira HUHEZIKekin. Hain zuzen ere, ikasleen talentua eta talentuen dimentsioak ezagutzeko HUHEZIK eskainitako ikastaroa egin du ikasketa buruak. “Beste izen batzuekin bada ere, konturatzen gara nabarmentzen diren dimentsio horiek dagoeneko lantzen ditugula institutuan, baina ez hain modu kontzientean eta sistematizatuan”. Pentsamendu kritikoren adibidea jarri du, “talentuaren dimentsio gisa aipatzen dena hizkuntza desberdinetan argudio testuak lantzen ditugunean lantzen dugu, eta baita Filosofian ere, baina hori guztia ordenatu eta sistematizatu egin behar dugu”.

Arrasateko institutuari dagoeneko sartua dagoen hezkuntza berrikuntzaren eraldaketa-prozesuan pertsona kooperatiboaren profilean gehiago sakontzeko eta sistematizatzeko balio izan dio KOOPHEZI-ik eskaini dion argazkiak.

## Arizmendirentzat, ebaluaziorako argazkia

Arizmendi ikastolak urteak daramatza hobekuntza pedagogikoan murgilduta, eta berriaz eta modu sistematikoan lantzen ditu ikasle kooperatiboa profila eta beste hainbat dimentsio. Gaur egun KOOPHEZI-i tresnak nahiz ikasle profilaren beste dimentsio batzuk neurtzeko testek ematen dizkieten datuak aurrera begira erdigunean ezartzen duten ikasle-profilaren zer esparru eta nola jorratu erabakitzen laguntzeko baliatzen dituzte. “Izaera kooperatiboa ikastolaren funtsean dago hasieratik, eta berriaz lantzen urteak daramatzagu —azaldu du Mireia Muruamendiaraz Batxilergoko berrikuntza pedagogikoaren arduradunak—. Ikasleen irteerako profila definitu genuenean, ikasle euskaldun konpetente eta kooperatibo moduan definitu genuen ikaslearen irteera-profila, baina



gerora berriro definitu dugu Arizmendi ikastolak erdigunean jartzen duen pertsona eredu edo ikaslearen profila, honako hausnarketa honi erantzunez: zer-nolako mundua aurkituko dute ikasleek ikastolatik ateratzen direnean? Bada, zer-nolako pertsonak garatu behar ditugu tokatuko zaien munduan bizi ahal izateko?”. Honakoak dira ikaslearen irteera-profilaren ezaugarriak: analitikoa-kritikoa; barne-sendotasuna duena; eraldatzailea; euskalduna; hurbila, enpatikoa; kooperatiboa, autogestionarioa eta sortzailea.

Arizmendi ikastolak zehaztua daukan ikaslearen irteera profila guztiz bat dator Oxel Azkaratek ondu duen KOOPHEZI-i tresnarekin eta HUHEZIKo Eragin ikerketa taldeak landu dituen talentuaren dimentsioekin eta berau neurtzeko testekin. Izan ere, Azkaratek hastapenetik jo zuen Arizmendira, izaera kooperatiboaren definizioaren eraikuntzan Arrasateko ikastolaren ikuspuntua jaso du eta tresna diseinatzen eta balidatzen ere parte hartu du hezkuntza zentroak. Orain talentuaren zazpi dimentsioen neurketan parte hartzen du ikastolak eta une honetan, testak pasatu ostean emaitzak aztertzen ari da. “Orain arte emaitzak oso onak izan dira dimentsio guztien neurketetan, baina garrantzitsua da urtetako perspektiba izatea pertsona-ereduaren zazpi dimentsioen neurketan non gauden hanka motzago ikusteko eta non jarri behar dugun fokua aztertzeko”. Datuak baliatuko dituzte hurrengo ikasturtean landuko dituzten proiektuak berrikustean ikasleen profil kooperatiboaz gain, zein beste profil edo dimentsio —ekintzailea, sortzailea, eraldatzailea... — indartuko duten erabakitzeko.


2009an txertatu zuen Konfiantzaren Pedagogia Arizmendik Haur Hezkuntzan, eta garai berean, Batxilergoan beste mugimendu esanguratsu bat gertatu zen: “Haur Hezkuntzan baino modu inkontzienteagoan gertatu zen aldaketa, baina oso garrantzitsua izan da. Irakasleek antsietate handiarekin ikusten zituzten Batxilergoko ikasleak, eta, era berean, eurak ere ez zeuden gustura, eta, gainera, ez zuten asetzen zituzten testulibururik aurkitzen. Ordenagailuarekin lan egiten hasi ziren, eta irakasle guztiak konprometitu ginen familiei ordenagailua eskatuko bagenien ez geniola testulibururik ordaintzea eskatuko, eta beraz, ordenagailu horretan eskaini beharko geniola Batxilergo osoa egiteko ikasleek behar zuten material guztia. Irakasleok asko hausnartu genuen eta formatu ere egin ginen, eta ikaslea zentroan jarriko zuen eraldaketan murgildu ginen. Ikasleak aktibo jartzeak irakaslearen rola guztiz aldatu du, eta horrekin guztia aldatu da, materiala, espazioa, ordutegia...”. Konfiantzaren Pedagogia Haur Hezkuntzarako soilik zela pentsatzen zuten hasieran, baina berehala konturatu ziren elkarrekiko zaintza eta bakoitzaren erritmo eta garapena errespetatzea Haur Hezkuntzan bezain garrantzitsua dela Batxilergoan. “Momentu hartan HHn eta Batxilergoan

iraultzak hasiak genituen eta, gero, poliki-poliki, LHn eta DBHn sartzen joan da eraldaketa”. Orain etapa guztiak daude eraldaketan murgilduta, eta LHko 5. eta 6. mailatan eta DBH 1 eta 2-n prototipo bat jarri dute martxan, ondoren gainerako etapetara zabalduko dena. Prototipo hori Arizmendi ikastolak erdigunean jarri duen pertsona eredu horren ezaugarrien lanketara bideratu da, Muruamendiarazek azaldu duenez: “Guretzat edukiak konpetetziak lantzeko bitarteko dira, eta konpetentziak pertsona-eredua lantzeko, era berean”.

Definitua daukaten pertsona-ereduak gaztetxoak ikastolatik ateratzen direnean izango dituzten ezaugarriei egiten die erreferentzia, beraz, irteera-profil hori neurtzeko, egoki ari diren ala ez jakiteko, beharrezkoak zaizkie neurketa-tresnak. “HUHEZIK eskaintzen dizkigun tresnak bat datoz gure asmoekin, 0tik 18ra egiten ari garen lanketaren emaitzak zer-nolakoak diren ikusiko baitugu; pertsona horiengan gure hezkuntza proiektuak daukan eragina ikusi ahal izango dugu”. Horrez gain, abian duen prototipoaren emaitzak neurtzeko, HUHEZIKoez gain, beste tresna batzuk ere ari da baliatzen Arizmendi, Kataluniako Ramon Llull unibertsitatearekin izaera analitiko kritiko eta eraldatzailea neurtzen ari dira, esate baterako. Halaber, testen datuak baliatuko dituzte beste ikastetxeekin konparatibak egiteko, “guk berariaz lantzen dugu ikaslearen irteera-profila gure proiektuetan, eta interesgarria izango da ikustea berariaz lantzen denean eta ez denean, diferentziarik ba ote dagoen datuetan”.

Ikasle-profila lantzeko bitartekorik onena, oraingoz, proiektuka lan egitea izan da Arizmendirentzat. Profila zehaztearekin batera etorri baitzen metodologia aldatzea. LHn ez ezik, DBHn eta Batxilergoko lehenengo mailan nagusiki proiektuka lan egitea —hainbat laborategiz gain— izan da jorratu nahi dituzten pertsona-ereduaren dimentsioetan sakontzeko biderik aproposena. DBHko prototipoan, esate baterako, egunero bi orduko tartean proiektuka lan egiten dute kurtso guztian. Proiektu guztietan modu kooperatiboan eta gizartearen eraginez lan egiten dute ikasleek, nahiz eta jarduera batzuk modu pertsonalean ebaluatzen diren. “Momentuz, guk eza-gutzen dugunetik, proiektuak eman digu pertsonaren alderdi desberdinak garatzeko aukera onena”. Batxilergoko bigarren mailan ere egiten dituzte proiektuak, ikasgaika.

Hurrengo urtera begira ezarria daukaten erronka estrategikoetan eragina izango du KOOPHEZI-ik eta beste testek emandako argazkiak, LOMLOEK irekiko dituen ateekin eta LHko 5. eta 6. mailatan eta DBH 1 eta 2-n jarri duten prototipoak emandako emaitzekin batera diseinatuko baitute 2022-2023 ikasturtean Arizmendin martxan jarriko duten eskaintza berriak.



“Gatazka bat dagoenean,  
izebergaren puntari begiratu  
beharrean, oinarriari begiratzen  
diogu pedagogia sistemikotik”

# ELKARRIZKETA: LARRAITZ MENDIZABAL - AITZIBER ESNAOLA PEDAGOGIA SISTEMIKOA

Urteak daramatzate Udako Topaketetan irakasleak pedagogia sistemikoan formatzen, eta hala egingo dute uztaile honetan ere, beste behin. Irailetik aurrera ibilbide berri bat hasiko dute Hik Hasirekin, urtebeteko formazioa eskainiko diete irakasleei, 'Pedagogia sistemikoan hezi eta bizi' izenekoa. Egunerokoan parte hartzen dugun sistema orotan dagokigun lekuan kokatu ahal izateko eta elkarreraginean

jarduteko baliabideak eskainiko dituzte urtebeteko formazioan. Horretarako, behatzailearen eta testuinguruaren garrantziaz ohartu eta sistema orotan dauden sistemaren ordenak izango dituzte bidelagun: kidetza; autoritatea eta lekua; eta hartu-emanaren arteko oreka. Ikaslearen ongizatea bermatzeko, ikas komunitatea eta familiaren arteko elkarlaren izaera sistemikoa ezagutaraziko dute.



**Urteak daramatzazue Udako Topaketan irakasleak pedagogia sistemikoan formatzen. Irailetik aurrera Hik Hasirekin hasiko duzuen ibilbide berrian, zer eskainiko duzue 'Pedagogia sistemikoan hezi eta bizi' urtebeteko formazioan?**

**Aitziber Esnaola:** Gu biok pedagogia sistemikoan dihardugun urte hauetan, bakarka zein elkarrekin, jaso, eman, sortu eta gauzatu dugun guztia eskainiko dugula esango nuke. Alde batetik, teoria emango dugu, pedagogia sistemikoaren oinarriak. Bizitza osoa egon daiteke pertsona bat oinarri horiek entzuten, eta urteetara konturatu hamar aldiz entzundako esaldi horrek zerbait sakonagoa esan nahi duela gure bizitzan eta lanean. Oinarria honakoa da: nola behatzen dugu, zer-nolako begirada daukagu geure buruarekiko eta besteekiko? Horrekin batera, pedagogia sistemikoaren oinarri teorikoan kontzeptu garrantzitsuak dira honako hauek: kidezaren, hierarkiaren eta harremanena. Teoriaz gain, baliabideak eskainiko ditugu: panpinak, ipuinak, marrazkiak, genogramak... eta oso gurea den zerbait: elkarrizketak. Ni panpinetan trebatua nago bereziki, eta Larraitzek komunikazioaren ildoan lan handia egin du, eta hortik baliabide bezala, elkarrizketak landuko ditugu. Baliabi-

de bat edo beste erabiltzen dugunean, etengabe oinarrietara bueltatuko gara. **Hik Hasirekin** eskainiko dugun urte osoko formazioa teorikoa bai, baina oso praktikoa izango da aldi berean, praktikaren bidez trebatuko dira baliabideez.

**Larraitz Mendizabal:** Pedagogia sistemikoan begirada da garrantzitsuena. Sisteman oinarritzen gara, eta sistema osoki hartzen dugu. Eskolari begiratzen diogunean, adibidez, sistema osoki hartzen dugu kontuan, eta gelako ikasle bat ere ez dugu ikasle isolatu gisa hartzen, baizik eta testuinguru bateko kide bezala. Irakasleok ere sistema horretako kide gara. Testuinguru horretan elkarreragin bat dago, eta sistema hori ordenatua dagoen ala ez, hortik gatazkak edo orekak etorriko dira. Hori guztia ulertzeko, testuinguruaren garrantzia azpimarratuko dugu ikastaroan. Pedagogia sistemikotik begirada testuinguruan jarriko baitugu eta ez gauza edo pertsona isolatuetan.

**Formazioa teoriko-praktikoa izango dela esan duzue. Nola egituratuko duzue?**

**L. M.:** Biok presentzialki egongo garen hamar saioko ikastaroak, bi zati izango dituela esan dezakegu. Lehen zatian, larunbatetan, testuinguruaren eta behatzailearen garrantzirik

hasi, eta ondoren hiru hurrenkeretan sakonduko dugu: kidetza; autoritatea eta lekua; eta hartu-emanaren arteko oreka. Bigarren zatira igaro aurretik, ikaslearen ongizatea eta garapena bermatzeko, eskola eta familiaren arteko elkarlanaren planteamendua zehaztuko dugu.

**A. E.:** Bigarren zatiaren saioak ostiral arratsaldetan eta larunbatetan burutuko dira. Zehazki, ostiraletan, gure lan esparruan identifika ditzakegun zailtasunen eta beharren lanketarako elkargunea sortuko dugu, gure begiradaren eraldaketarako baliabide oso interesgarria izango da. Larunbatetan, aipaturiko elkarlanerako, modu espezifikoan baliabide hauetan sakonduko dugu: elkarrizketak, ipuinak eta panpinak. Honekin guztiarekin, gure bizitzako esparru orotan, begirada sistemikoarekin hezi eta bizi ahal izateko baliabideak eskaintzea da gure helburua.

**Dagoeneko aurreratu dituzue pedagogia sistemikoan garrantzitsuak diren hainbat kontzeptu, kidetza, hierarkia... Azal ditzakezue zein diren begirada honen oinarrian dauden kontzeptu gako horiek?**

**L. M.:** Pedagogia sistemikoa ez da metodologia bat, premetodologia bat baizik. Hau da, edozein metodo-

giatarako baliagarri zaigun lekuaren bilaketa bat eta begirada bat da. Sistemetan oinarritzen da, eta hor testuinguruak garrantzia handia dauka, baita sistema guztietan ematen diren hurrenkerek ere, eta horiek dira pedagogia sistemikoaren oinarriak: kidetza, hierarkia eta hartu-emanen oreka.

**A. E.:** Testuinguruari lehenetsuna emanda, errealitate horretako kide izate hutsagatik behatzaile gisa testuinguru horretako errealitatea sortzeko daukagun gaitasuna nabarmenduko nuke. Behatzaile bezala, ikasle, lankide, eskola testuinguruan, ikas komunitatean edo familian, gure harreman sare horretan, errealitate sortzaile gara, errealitate ez hain objektiboak sortzen ditugu behatzaile gisa.

**L. M.:** Errealitatea subjektibitatez bete baitago, gure balioek, gure sinesmenek, gure izateko erak, gure bizimoduak zipiritintzen dute eta horretaz guztiaz jabetzen laguntzen digu pedagogia sistemikoak.

**A. E.:** Ondoren, lekua hartuko dugu, gure ardura eta funtzioen arabera, edo daramagun denboraren arabera (antzinatasuna). Eta gero harremanei buruz hitz egiten hasi ahal izango dugu. Kontua da gure jendarteren gauzak alderantziz egitera ohituak gaudela, harremanetan gatazkak nabaritzen ditugunean harremana konpontzera joaten garela. Guk sistemiko bezala honako ibilbide hau egiten dugu: denak sentitzen dira kide? Denak daukate ziurtatuta kidetza? Denak daude beren ardura eta funtzioetan? Gako horiek ordenatzen goazen neurrian, harremanak baretu egiten dira. Gatazken kudeaketan atzera begirako bat egiten dugu: goazen ibilbidea atzeragotik begiratzera. Gatazka bat dagoenean normalean norbait ez da kide sentitzen, bere burua erdi kanpo sentitzen du edo ez zaio lekua eman... esklusio eta inklusio dinamika horiek egon ohi dira gatazken atzean, eta pedagogia sistemikoak horra begira jartzen gaitu.

**L. M.:** Izebergaren puntari begiratu beharrean, oinarriari begiratzen diogu sistemikotik, oinarrian dauden hiru hurrenkera horiei —kidetza; autoritatea eta lekua: hartu eta emanaren arteko oreka— eta testuinguruari begiratu diegu.

### Sistemaren ordenaren inguruko adibide bat jar zenezakete?

**L. M.:** Adibidez: Marokotik etorri den ikasle baten kasuan, pedagogia sistemikotik lehenengo kidetza landuko dugu sisteman. Izan ere, hiru hurrenkera horiek hurrenkera bat daukate beraien artean, eta lehenengo kidetza izango da. Beraz, lehendabizi Marokotik etorri den ikaslea sistematiko kide izatea landu beharko dugu. Kide izatea lortzen duenean, leku bat hartzea lortuko du. Eta lekua lortzen duenean, hartu-emanen egoteko prest egongo da. Kasu batzuetan, ordea, kidetza ez da ziurtatua egoten. Eta kidetza oso lotua dago esklusioa eta inklusioarekin, eta beraz, bi elementu horiek landu beharko ditugu: nola egin zaio ikasle horri ongi-etorria? Nola jaso da haur hori? Nola egin dira talde kohesiorako dinamikak?

**A. E.:** Eta hori landu behar duenak zer-nolako balioak ditu jatorriko kultura horrekiko? Zer sinesmen ditu? Edo, zer epai ditu? Kidetza ematea dagokion helduak izan dezakeen epai posible horrek ikasle berriaren kidetza baldintza dezake.

**L. M.:** Horrelako kasu batean, irakasle bezala, asko kosta dakiguke gure eguneroko patxada eta normalitatek ateratzea, taldea lasai eta kokatuta daukagulako, eta deserosotasun horrek kidetza berriarekiko erresistentzian egotea eragin dezake, edo begirada ezkorra izatea... Badakigu kidetza hori garatzen ez baldin bada, oso zaila izango dela ikasle berri horrek leku bat aurkitzea eta hartu-emanak garatzea. Hartu-eman horri loturik dago arlo curricularra.

Beste adibide batera etorrira, jolas-tokian haurren artean liskar bat egon denean, adibidez, ikasle baten kidetza lagun artean kolokan jarri baldin bada, gelara etorritakoan haur hori ez da egongo alor akademikoari begira, jangelako garaian jolastokian zeinekin egongo den kezkatuta egongo da.

**A. E.:** Askotan ez dago beste kultura edo beste egiteko modu batzuetara joan beharrik; edozein familiarekin izan ditzakegu proiektzio ezkorrak, baita gure bizilaguna den horrekin ere, gure amak zeukan egiteko modu bat gogorarazten digulako, adibidez, eta horrek gu haserrearekin konektatzen

“Harremanetan gatazkak nabaritzen ditugunean harremana konpontzera joaten gara. Guk sistemiko bezala honako ibilbide hau egiten dugu: denak sentitzen dira kide? Denak daude beren ardura eta funtzioetan? Gako horiek ordenatzen goazen neurrian, harremanak baretu egiten dira”

“Kidetza garatzen ez baldin bada, oso zaila izango da ikasle berriak leku bat aurkitzea eta hartu-emanak garatzea. Hartu-eman horri loturik dago arlo curricularra”

“Ikaslearen sistemak irakaslearen beraren sistema propioa gauzak begiratzea dakarkio eta hori askatutakoan, ikasle horrekiko zailtasunak ere askatu egiten dira”



gaituelako. Inkontzientek izanagatik ere, gure epaiak oso baldintzatzaileak izan daitezke haur baten kidezta bermatzeko garaian. Tutore bezala gauza asko baldintza ditzakegu, baina gauza askori buelta ere eman diezaiekegu.

**“Zaila egiten zait ikasle hau” pentsatzen dugunean, adibidez, geure buruari begiratu beharko genioke, eta ez hainbeste ikasle horri edo familia horri?**

**A. E.:** Horrelako kasuetan, gehienetan irakasleak ikasle horren sistemarekiko daukan begiradan egon ohi da gakoa. Ikasle horren sistemak irakasleari bere sistema propioko gauzak begiratzea dakarkio eta hori askatutakoan, ikasle horrekiko zailtasunak ere askatu egiten dira. Magia puntu bat ere badauka.  
**L. M.:** Horrelakoak gertatzen dira haur batzuen baloreekin edo izatea-

rekin talka sentitzen dugunean. Haur bat isila eta motela denean, adibidez, zer zailtasun ditugu ikasle hori barne hartu eta gure begiradan kokatzeko? Laztan bat emateko, ukipen bat, aipamen bat egiteko? Txango batera joan eta gertatu izan zaigu, “gaur egun guztian ez dut Igor ikusi” ... *Golden five*-ek “haur gris” deitzen dien ume horiekiko zailtasunak sentitzen ditugu batzuetan, edo oso mugituak diren umeek, agian, gure onetik ateratzen gaituzte, edo agresibitatea daukaten haurrek, guk ezin batitugu agresibitatea jasan... Haur horiekiko begirada aldatzea oso inportantea da.

**Nola da posible begirada aldaketa hori egitea gelan 20-25 ume baldin baditugu, 20-25 begirada aldaketa egin behar dira?**

**A. E.:** Normalean ez dira 20-25

begirada aldaketa egin behar izaten. Normalean irakasle bakoitza erdi kontziente da norengana ez den iristen, nork mugitzen dion barrenean zerbait; hiru, lau bost izaten dira. Eta, bitartean, pelotoia aurrera doa.

**L. M.:** 25 begirada dituzu, eta zeurearekikoarekin, 26. Baina egunerokotasunean zailtasuna sortzen duten horiek lantzen ditugu pedagogia sistemikotik. Guk badaukagu oinarri bat: ez sortu arazoak ez dauden lekuan. Baina arazoak aurkitzen ditugunean, goazen pedagogo sistemiko baten begirada soluzioan kokatzera.

Ikasle batek irakaslearen barrenean zerbait mugitzen duenean, irakaslearena den zerbait mugitzen duenean, askotan irakaslea ikasle horrekin tenkatu egiten da. Azter dezagun zer den irakaslearena eta zer ikaslearena; zer da irakasleak barne hartu behar duena eta zertaz egin behar du kontziente? Zer islatzen dio? Zer zailtasun ditu ikaslearen izatea barne hartzeko? Motel-motela eta potolo-potoloa den ume batek, agian, irakasleari berak bizi izandako garai bat gogorarazten dio, eta garai horretan berak oso gaizki pasatu zuen, eta orain, mugimendua sortzen dio barrenean isla horrek...

**A. E.:** Nola akonpainatuko dut nirea den min bat? Horraino goaz. Haur hori leku indartzaile batetik akonpainatzeak irakasleari bere minarekiko maitasunezko begirada bat edukitzea suposatzen dio eta, normalean, gure minei ez diegu begiratu nahi izaten, minek emozioetara eramaten baikaituzte. Hori inkontzienteki egiten dugu guztiok, bizirauteko, lan-ordu horietan ahalik eta ondoen egoteko... Pedagogia sistemikoaren formazioak kontzientzia zabaltzera eramaten gaitu, geure burua, geure jatorria, nondik gatozen begiratzera, eta hortik aztertuko dugu zer erabaki har ditzakegun beste jardun bat egin nahi badugu. Zailak egiten zaizkigun ikasle horiek guretzat opariak dira, geurea den zerbait islatzen digute ikasle horiek. Behin kontzientzia hartuta, normalean, tutore, irakasle edo ardura daukanak, berea begiratzen duten momentutik, *klak* bat egoten da gehienetan, eta haurrarekiko egoera aldatzen da.

**Pedagogia sistemikoaren gakoetako**

**bat, beste sistema, familia, kontuan izatearena da. Ikusmolde honek dio ikasle bakoitzaren familia hartu behar dugula kontuan ikasleari begiratzen diogunean... Alta, ez bada testuingurua ongi ezagutzen, aurreiritziekin jokatzeko arriskua egon liteke, ezta?**

**L. M.:** Gure iritzian klabea da gela berri bat hartzen dugunean, tutore gisa haur guztien gurasoekin elkartzea irailean edo urrian, elkar ezagutzeko, abendua arte gurasoekin elkartu gabe ez egotea. Bilera hori elkarlanaren abiapuntutzat jotzen dugu. Modu goxo batean elkar ezagutzea helburu duen elkarriketa bat izango da, guk irakasle bezala beraien haurren arduraren hartuko dugulako eskolaren orduetan. Gure protokolo edo egiteko modu bat da hori.

**A. E.:** Ikasleak familia testuinguru bat dauka, eta egiten duen guztia familiako sinesmen eta balore horien baitan egiten du. *Desegituratutako familiak* esaten denean ez da zuzena, familia guztiek daukate egitura bat, nahiz eta gure egiteko moduarekiko edo egiturarekin berdina ez izan. Batzuetan kostatzen da egiten zaigu sinestea, baina argi izan behar dugu, ongizateari begira, denok ahal dugun ondoen egiten ditugula gauzak leku guztietan. Beraz, haur horrek eskola orduetatik kanpo badauka sistema bat eta berekiko erabakiak hartzen dituzten pertsona batzuk, eta horiek errespetatzea dagokigu irakasle bezala. Beste gauza bat da sistemarekiko begirunezko begirada izanagatik, haien markoa ez partekatzea. Esate baterako, defendatzeko eskubidearen markoaren baitan gertatu izan zaigu gure gelako haur batek bere etxean ez baimendua izatea kolpatzea, aldiz, guk hezitzaile bezala, garbi uzten diegu gurasoei eskola testuinguruan defendatzeko eskubidea aitortuko diogula ume horri, gure heziketa markoan balore inportante bat delako. Baimen hori edukitzeak ez du esan nahi haur horrek erabiliko duenik, baina inklusioaren begiradatik, badakigu erabiltzeko aukera edukitze hutsak aukera bat ematen diola ikasleari. Hortik aparte, ez gara sartuko etxean horrela edo bestela egiten duten. Gurasoekin egingo dugun hurrengo bileran azalduko dizkiegu haserrea ateratzeko aukera izateak

haur horri zer onura ekarri dizkion, bai edukiei dagokienez, bai harremanei dagokienez ere. Gure egiteko modua azalduta eta onurak ikusita, gurasoek hartuko dituzte beren erabakiak. Hori da familiekiko begirunezko begirada edukitzea.

**L. M.:** Batzuetan soluzioa familiaren kontzientzia hartzen horretan bertan dago. Haurra fidela zaie gurasoei eta familiaren sistemari, eta kasu batzuetan, gurasoen sinesmen edo balioak muturreraino eramaten dituztenean beraien haurra, nahi gabe, taldetik ateratzen dute. Defendatzeko eskubidea, edo haur bakoitzaren espazio bitala inork ez inbaditzea adibide bat izan daiteke, etxean haserrea ateratzeko aukerarik ematen ez zaien haurren egoerak ere asko ikusten dira, baina gauza sinpleagoak ere gertatzen dira. Mugikorri dagokionez, adibidez, guraso batzuek erabaki dezakete iraila arte seme-alabari ez diotela emango telefonorik, baina, bat-batean, sinesmen horregatik uda guztian euren seme-alaba koadrilatik guztiz kanpora gera daiteke, ez bada lidergoan kokatzen den bat dela. Oso inportantea da jabetzea gure sinesmenak eta baloreak mugatzaileak direla momentu batzuetan, eta pertsonak baztertu ditzaketela. Formazioan saiatuko gara ikusarazten gure sinesmenek, bai gurasoenek baina baita eskolako testuinguruan irakasleentz ere, muga batzuk ezar ditzaketela momentu batzuetan, eta haurra ahuldu egin dezaketela, gaizki pasarazi diezaioketela. Haurren ongizateari begira inportantea da sinesmen horren zabalkundea.

**Sinesmenek eragin ditzaketen mugez jabetzeko, edo beste aldaketa batzuk egiteko, zer baliabide jasoko dituzte 'Pedagogia sistemikoan hezi eta bizi' formazioa egiten duten irakasleek?**

**A. E.:** Elementu batzuk balio sinboliko handikoak dira, panpinak erabiltzea, marrazkiak, ipuinak... Panpinek, esate baterako, hitz asko jarri beharrik gabe, oso modu sinbolikoan gauzak ateratzeko eta irudikapenak egiteko aukera ematen digute. Gatazkaren bat edo zailtasunen bat erakusten duen haurrarekin, adibidez, panpinekin saio bat eginda joan gaitezke gurasoen bilerara eta horrela ezagutu ditzakegu,

“Zailak egiten zaizkigun ikasle horiek guretzat opariak dira, geurea den zerbait islatzen diguten ikasle horiek”

“Marrazkiak ere gure oinarri buruz, bai kideztaz; lekuaz, arduraren eta funtzioez, eta baita hartu-emanaren orekaz ere, isla erakutsiko digute. Haur baten marrazkia begiratzen dugunean ikuspegi sistemikotik, ea bakoitza bere lekuan dagoen aztertuko dugu”

“Pedagogia sistemikoan panpinak, ipuinak, genogramak, marrazkiak, mugimenduak ere erabiltzen ditugu eta guztiak formazioan emango ditugu, baina baliabide onena bakoitzak egiten duen betaurreko aldaketa da”



dagoeneko, haurren nahiak zein diren. Adinaren arabera, hitzeko azalpenak emateko gaitasuna ez daukaten aski garatua edo nahiz eta gaitasuna eduki gauzak adieraztera oso ohituak ez dauden kasuetan, panpinak, ipuinak eta horrelako baliabideek aukera ona ematen diete haurrei euren buruaz eta besteez jarduteko, modu sinbolikoan. Ikaragarritzko potentziala daukate.

Panpinekin saio bat egiten ari ginela, haur bati galdetu nion ea bere amari zer gustatzen zitzaien, “amari, negar egitea gustatzen zaio”, erantzun zidan. “Eta aitari zer gustatzen zaio?”. “Bronka botatzea. Aitak bronka botatzen du, amak negar egiten du eta gero nire arrebak eta biok ere negar egiten dugu”. Haurrak panpinekin bere burua irudikatu zuen moduari esker, galderaren bat egiteko beharra sentituta, erantzuna sorpresa ederra izan zen. Haurra ulertzeko aukera bat. Panpinen baliabideak ikasleen barne mundurako ateak irekitzen dizkigute, bidelaguntza indartzaileago bat burutzeko aukera bat, finean.

**L. M.:** Marrazkiak ere gure oinarri buruz, bai kide bezala, bai lekuaz, bai ardura eta funtzioez eta baita hartu-emanaren orekaz ere, isla erakutsiko digute. Haur baten marrazkia begiratzeko dugunean ikuspegi sistemikotik,

ea familiako kide bakoitza bere lekuan dagoen aztertuko dugu. Anaia-arreben artean ea badagoen leku aldaketarik edo anaia-arreben artean ze harreman dagoen... Edo gurasoak beren lekuan dauden ikus daiteke... Haurrak sentitzen edo bizitzen duen horrekiko informazioa ematen digute marrazkiek. Nik duela gutxi haur bati bere familia marrazteko eskatu nion; bere burua marraztu zuen hondartza batean, eta denbora pila bat hartu zuen hondartza marrazteko; eta galdetu nion, “non dago familia?”. Aita eta ama banaketa prozesuan zeuden. “Ama eta aita *por ahi*”, erantzun zidan, arreba parkean zegoela esan zidan, eta bere burua bakarrik marraztu zuen. Informazio baliagarria ematen digute. Ikasle batzuek, adibidez, beren burua ez dute jartzen marrazkian familiako kide bezala. Horrek erakutsi diezaguke familiako kide bezala arriskuan egon litekeela. Marrazki horiek ikusten ditugunean jakin behar dugu kide ondo landu behar dugula gelan.

**A. E.:** Panpinen bidez edo marrazkietan interpretatu duzun horrekiko hartu dituzun neurriak eta gelarako proposatu dituzun aldaketek ez badute emaitzarik ematen, kanpora, beste erabaki eta neurri batzuk hartu behar dituzu. Edo balio du, edo ez du balio. Panpinekin egiten dugun dinamikan ikusi

badugu aita ez dagoela barnean, esate baterako, barne hartzeko dinamikak ezarriko ditugu gelan. Hori eginagatik haurraren ez badugu aldaketarik ikusten, ez dugu asmatu, berriro beste zerbait egin behar dugu. Egindako horren aldaketa sentitu behar da haurraren jarreraren.

**Irakasleak gero eta exijentzia gehiago dituela kontuan izanik, hezitzaile gisa bere rolean indartsu egoteko, zer eskaintzen du pedagogia sistemikoak?**

**A. E.:** Norbere bizi proiektuaren barruan, jardun profesionalean hazteko aukera ematen du. Arlo horretan ez ezik, beste esparruetan, familia, lagun sisteman edo gure militantzian, dagoen lekuan, egiten ari garen hori gure potentzialitatekin egiten ari garela sentitzen lagunduko digu. Era berean, arlo batean zailtasunen bat baldin badaukagu ere bakean begiratu ahal izango diogu zailtasun horri, horretarako oinarri teorikoak eta baliabideak izango ditugulako. Prestutasuna daukagu harreman batek sortzen digun tristurari begiratzeko, esate baterako. Finean, hitza, ekintza eta pentsamendua batera doazela sentitzen dugu, eta erabakiak hartzen laguntzen digu.

**L. M.:** Oinarri teorikoak eta baliabideak ditugu gure bizitzako egunerokoan autoezagutzarako eta baita

norberaren jardun profesionalerako. Eta aldiz, gure ardura eta funtzioetan ez bagaude, hortaz jabetu eta erabakiren bat hartzeko.

**A. E.:** Parte hartzen dugun sistema desberdinetan biziraupenean egon beharrean, bizitzen egotera garamatza pedagogia sistemikoak. Denok dakigu zein harremanetan gauden biziraupenean eta zer harremanetan egoteko gogoia daukagun. Badakigu lanera zerbait inportantea egiteko sentsazioarekin goazen edo ez.

### **Zer desberdintasun dago irakasle bezala bakarrik jardun ikuspegi sistemikotik edo taldean jardun?**

**L. M.:** Sistema baten barruan dauden kide guztiak beren ardura eta funtzioetan kokatzen badira, edo momentu batean bakoitzak bere partearen zerbait ordenatzen badu, sistema osoari egiten dio onura. Sare bat izango balitz bezala da, ni nire lekuan kokatzen banaiz, sistema osoari egiten diot mesede.

**A. E.:** Etapa bateko taldean, boskotea badira, denak kide sentitzen dira? Hitza badutela sentitzen dute? Entzunak direla? Beren egiteko modua errespetatua dela? Errespetuzko begirada dago lankideen partetik? Bakoitzak bere ardura eta funtzioak definituak ditu eta betetzen ditu? Badakigu pertsona horien arteko harremanak, gako horiek guztiak zainduta, osasuntsuak izango direla.

### **Ikastetxe bezala, antolatu liteke egitura ikuspegi sistemikoaren arabera? Ikastetxean protokolo batzuk edo egitura batzuk eraikitzeak, adibidez, mesede egingo luke pedagogia sistemikoaren egiteko modua gehiago zabaltzeko?**

**A. E.:** Protokoloekin kontu izan behar da, bestela, pedagogia sistemikoaren izenean, pedagogia sistemikoaren funtsa galdu daiteke. Ezar daitezke protokolo horiek zaintzeko gaitasuna duenarentzat; zaindu ezin dituenarentzat, ez.

**L. M.:** Ikastetxe guztiek egituraketa bat daukate, baina egituraketa batek ez du ziurtatzen, nire iritziz, sistema batean oreka egongo denik. Ikastetxearen egiturak etengabe egon behar dute berrikusten; etengabeko errebisioan egotea da inportantea eta

garapen pertsonalerako eta komunikazio asertiborako bidean egotea.

**A. E.:** Eraldaketa etengabe egon behar du egiturak pedagogia sistemikoaren ikuspegitik. Testuinguruak etengabe aldatzen direlako, langileak aldatzen direlako, ikasleak aldatzen direlako... Testuingurua aldatzen doan heinean, egiturak ere egokitzapen batzuk beharko ditu. Egitura sistemiko batek ezin du izan estatikoa, dinamikoa izan behar du testuingurua aldatzen doalako.

**L. M.:** Guk formazioetara etortzen diren irakasleei askotan esaten diegu: hasi zuenetik, hasi poliki-poliki; hasi zuen gelan; hasi gauzak praktikatzeko, ikusi funtzionatzen duen edo ez duen, joan ikusten gaur zer barne hartu duzuen eta zer baztertu duzuen; joan umiltasunetik. Umiltasuna guretzat oso garrantzitsua da. “Ni sistemikoa naiz” diotenen ego horretatik baldin bagoaz, bide okerretik joango gara, hori ez da bidea, gure ikuspegitik. Sistemikoaren gainean badago ikuspegi distortsionatu bat.

### **Distortsio horren adibide, dogma gisa edo azalpenik gabe zabaltzen diren egiteko modu batzuk izan litezke. Adibidez, ikasleak borobilean jartzen dira, “sistemikoak hala esaten duelako”...**

**L. M.:** Gelan ordena jartzeko modu bat da, irakasle bezala leku bat ematen diogu gelan ikasle bakoitzari. Ordena bat izan daiteke zaharretatik gazteenera, baina izan daiteke, baita ere, beste irizpide batekin, abedearen arabera, adibidez. Era horretan, ikasleak gelara etortzen direnean, bakoitzak bere lekua dauka. Zer ekiditen du horrela antolatzeak? Adibidez, jolastokian liskar bat eduki duen haurrak badauka non eseria, irakasleak berarentzat leku bat dauka jarria; norbait gaixotzen bada, badakigu gaixo dagoela... errepikatzaile bat etortzen bada gelara, aurrena jarriko genuke, sistemian lehenagotik dagoelako. Leku bat eta bakea ematen dizkiogu haurrari entzuten eta jasotzen egon dadin. Eta nori zuzentzen diogu begirada hori? Integrazioerako eta kideztarako zailtasun gehien daukanari. Adibidez, igerilekura goazenean autobusean binaka eseri behar badute haurrek, badakigu libreki esertzeko aukera

ematen badiegu, haur batzuk inoiz ez direla aukeratuak izango, beraz, hori gertatzen denean irakasle bezala ez gara kideztza zaintzen ari. Tutore bezala ikasle guztien inklusioa, kideztza eta ongizatea zaindu behar ditugu.

**A. E.:** Aintzinasunaren arabera ordenatzen dira borobilean, bizitzara etorri diren ordenaren arabera. Borobilean kokatzea niretzat altxor bat da Haur Hezkuntzan. Nagusienak eta txikiak urtebeteko diferentzia daukate eta garapen aldiari dagokionez, argazki erreal bat eskaintzen digu borobil horrek. Baina horren aurretik ikasle guztien ongizatea dago. Nik neuk ez ditut horrela jartzen nire gelan: diagnostiko bisual bat daukan ikasle bat daukat, eta berez ordenaren arabera bigarren egotea bazegokion ere, ikusmenagatik komeni zaio nirekiko ardatzean egotea. Antzinasuna apurtzen dut, ikaslearen ongizatea eta garapena jartzen dudalako lehenengo. Egoera dogmatizatzen dugunean, eta dogma eta arauari begira gaudenean eta ez ikaslearen ongizateari eta garapenari begira, horrelako hanka-sartzeak egiten dira, baita sistemikoaren izenean ere. Antolaketa modu horrek haur guztien garapenerako baliagarria izan behar du.

Gure dogma bakarra umiltasuna da. Estatikoa deritzogun hori guztia, “horrela da eta beti horrela izango da” gure egiteko modutik kanpo dago. Askotan errepikatzen dugu: umil jokatu, zaindu, poliki, aurrena norbere buruari begiratu, sentitu gauzak egin nahi dituzula, konektatu zeure nahiarekin... Oinarri teorikoak erabaki bat ala beste hartzeko ahalmena ematen digu, aldiz, gisa horretako esku-hartzeak oinarri teorikorik gabe egiten ditugunean, “esan didatelako” horretatik, erabakiak ez du zertan funtzionatu, testuingurua aldatzen denez gauzak aldatu egiten baitira.

**L. M.:** Pedagogia sistemikoan parrainak, ipuinak, genogramak, marrazkiak, mugimenduak ere erabiltzen ditugu eta guztiak formazioan emango ditugu, baina baliabide onena bakoitzak egiten duen betaurreko aldaketa da: ikuspegi zabaltze hori. Ez da hainbeste zer egiten dugun, baizik eta egiten dugunaren zentzuaz jabetzeak dauka garrantzia.

# ESPERIENTZIAK

ELKARBIZITZARAKO JOLASTOKI HEZITZAILEA

## Eskolako jolastokia, auzoko plaza

1985ean eraiki zuten Odon de Apraiz ikastola, Gasteizko Zaramaga auzoan. Eskolako jolastokia breazko zabaldegi handi bat da, eta haurrak, familiak eta hezitzaileak ohartuta daude espazio horrek gatazkak eta botere-harremanak sortzen dituela eta, gainera, ez dituela asetzen gaur egungo hezkuntzako eta elkarbizitzako premiak. Auzora ireki nahi dute eskolako jolastokia, naturalizatu eta jolas ugaritarako eta bizikidetzarako plaza bilakatu nahi dute.

**A**nimalien hiltegi bat zegoen lekuan eraiki zuten, 1985ean, Gasteizko Zaramaga auzoan, Odon de Apraiz ikastola. Gurasoen inplikazioa izan da immigrazio handiko langile-auzo horretan kokatutako ikastetxe publikoaren ezaugarrietako bat, sorreratik beretik; halaxe nabarmendu du 1985etik ikastetxeko Haur Hezkuntzako andereño eta gaur egun zuzendari den Maru Agirrezabalek: “Zaramaga nortasun handiko auzoa da, langile-auzo konprometitua, eta ikastola horren adibide da, gurasoentzako elkargune garrantzitsua denez inplikazio handiko ikastola da”. B eredutik D eredura aldatzea izan zen familiek eta irakasleek elkarrekin eskuratu zuten lehen lorpena. Geroztik, asko izan dira familien eta hezitzaileen parte-hartzea eskatu duten lan-lerroak, euskararen eta gizarte-kohesioaren inguruan, beti ere. Azken urteetan, eskolako jolastokiaren inguruan batu dituzte indarrak eta ahaleginak familiek eta hezitzaileek, elkarbizitzarako jolastoki hezitzailea eraiki nahi baitu-



Patricia Saratxo gurasoa, ikastetxeko zuzendari Maru Agirrezabal eta Mertxe Garcia guraso elkarteko lehendakaria.

te Odon de Apraiz ikastolan.

Grisa da guztiz Odon de Apraiz ikastolako jolastokia. Luze-zabalean, handia da breazko zabaldegia. Hotza eta zaharkitua ikusten da. Asfaltozko metro koadro luzeetan, futbolerako nahiz saskibaloirako pistak daude margotuta. Lurrera eroriz gero, asfaltozko zoruak zer-nolako mina egiten duen nabarmentzen dute haurrek: lehenengo mailako Haizeak dio belarra jarri nahi duela, “jausten garenean

minik ez hartzeko”; 3. mailako Enekok argi dauka: “Ez zait gustatzen lurra, ze min handia egiten du”; baita 4. mailako Raniak ere: “Jolastokiko lurra kendu, arriskutsua delako”. 3. mailako Elurrek hondartegia jarri nahi du. 6. mailako Kimetzek “jolastokian zuhaitz gehiago egotea” eskatzen du, “horrela jolastokia berdeago gelditzeko”.

1985ean eraikitako eskola-atariak ez die gaur egungo premiei erantzu-



ten, “ez hezkuntza-premiei ez eta elkarbizitzari begira dauden beharrei ere”, zuzendariaren arabera, eta bero-ri eraldatzeko prozesuan murgildutako dago Odon de Apraizko komunitatea. “Bagenekien zer ez genuen nahi; bagenekien atari honek zer-nolako arazoak zituen, baina ez genekien, zehazki, zer nahi genuen”. Bada, beharrak mahai-gaiean jartzeko parte-hartze prozesua abiatu zuen Odon de Apraizko komunitateak. Prozesua gauzatu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren babesia izan dute, “Jolastokia egin” parte-hartzeko prozesua bultzatu baitzuen sailak duela bi ikasturte. Nondik izeneko arkitektura- eta hezkuntza-ikerkuntzako estudioak gidatutako prozesuari esker, batetik, gaur egungo jolastokiaren mugak eta oztopoak mahai gaineratu zituen eskola komunitate osoak, eta, bestetik, haurren, familien, hezitzaileen eta, are gehiago, auzoaren premiak ezagutu ahal izan zituzten, behaketa eta parte-hartze prozesuari esker. Honela laburbildu du diagnosa Patricia Saratxo gurasoak: “Agerian gelditu zen espazioak haurren arteko elkarbizitzan gatazkak sortzen dituela; haurrak ez daude gustura euren ikastolako jolastokiarekin; gizarte-berrikuntzarako proiektu komunitario gisa baliatu behar dugu jolastokia, eta auzora ireki behar dugu”. Jolastokiak generoen arteko desoreka nola sustatzen duen jarri du adibide gisa: “Oso futbolzalea den

seme bat daukat, eta jolastokiaren eraldaketaz hausnartzen hasi ginean galdetu nion ea nork jolastoen jolastokiaren erdigunean; mutil gehienak eta neska gutxi batzuk futboleko ibiltzen zirela erantzun zidan, erdigunean; gainerako neska guztiak eta futbola gustatzen ez zitzaizkien mutilak non ibiltzen ziren galdetu nion, eta ez zekien. Emakumeen ikusezintasuna dakar gaur egungo jolastokiaren ereduak, bazterretan egoten dira neskak, erdian daudenek ez dituzte ikusi ere egiten, eta botere-harremant hori, ondoren, ikasgelan eta harremanetan islatzen da; alferrik da gero genero-berdintasuna lantzea, eurek dagoeneko botere-harremant bizi izan dituzte jolastokian”.

Jolastokia auzora irekitako plaza bilakatzea da Odon de Apraizko eskola-komunitatearen premia eta desira handienetakoa bat. Zaramaga auzoaren ezaugarri den heinean, kohesioa indartu nahi dute gurasoek eskola-atariaren bidez, Saratxok azaldu duen eran: “Parte-hartze prozesuan ikusi dugu jolastokia familientzako gizarte-kohesiorako tresna bat dela. Auzokideak gara haurrak ikastola honetara ekartzen ditugunak, bertan jaiak nahiz kanpotik etorriak diren haurren arteko oreka mantentzen dugu eskolan, eta gizarte-kohesiorako plaza garrantzitsua izan daiteke eskola, hemen elkartzen baikara familiak. Auzokideen arteko, belau-naldien arteko eta kulturen arteko

harremanak gauzatzeko tresna bat da jolastokia; ez gara beste inon elkartzen hemen bezala”. Beraz, Saratxok dioenaren ildotik, “eskola auzorako berreskuratzeko” ezinbestekoa da, zuzendariaren hitzetan ere, “jolastokian beste harreman mota batzuei leku egitea; naturalagoa izatea eta gaur egungo hezkuntzaren, haurren eta familien beharrei erantzuteko eraldatzea”.

Elkarbizitzari loturiko helburuez gain, familiekin eta hezkuntza-komunitatearekin egindako hausnarketa-prozesuan honako gogoeta hauek ere nabarmendu ziren etorkizuneko jolastokiari buruz:

1. Jolas arautura bideratutako espazioa eraldatzeko beharra ikusi

**“Haurrak ez daude gustura euren ikastolako jolastokiarekin; gizarte-berrikuntzarako proiektu komunitario gisa baliatu behar dugu jolastokia, eta auzora ireki behar dugu”**

**Patricia Saratxo, gurasoa**

## ESPERIENTZIAK: ELKARBIZITZARAKO JOLASTOKI HEZITZAILEA

- zuten: “Izan ere, futbolak hartzen duen garrantzia medio, honen inguruan sortzen diren gatazka eta arazoak zein islatzen dituen erlazioatzeko moduak ez dira jolasa mugatu eta debekatzearikin ekidingo”.
2. Espazio irekiaren artikulazioa (natura, askotariko egiturak, eserlekuak...) beharrezkoa ikusten dute: “Egungo jolastokia gogorra, hotza eta irekiegia da, babesguterik gabe, esperimentaziorako aukerarik gabe, eta haurrak korrika egitera bideratzen ditu eta babesgune bakarrak izkina itsuetan daude”. Horri loturik, espazio txikien beharra aldarrikatzen dute: “Haurren parametroetara egokitutako egiturak eta baliabideak (etxeokak eta egitura txikiak, gordetzeko, babestuta sentitzeko, espazioak konkistatzeko...)”. Kanpo espazioen erabilera hobea bermatzeko, aterpeak ere ezinbestekoak direla ikusi zuten.
  3. Jolastokia naturalizatu behar dela ikusten dute haurrek, familiek eta hezitzaileek: “Hemengo kliman oinarrituta, natura eskolara gerturatzea eskatzen dugu, zuhaitz autoktonoak, berdeguneak, enborrak, harea...”.
  4. Komunitatearen arabera, egungo jolastokiak ez ditu jolas mota guztiak ahalbidetzen: “Jolas sinbolikorako, jolas manipulaziorako eta sensorialerako baliabideak falta dira gehien bat”. Nabarmena izan zen sormena eta jolas kooperatiboa bultzatzen duten egituren beharra.
  5. Hezkuntza-prozesuak kanpoko espazioetara zabaltzeko aukerarik ez dagoela ikusten dute: “Esperimentaziorako baliabideak falta dira: hondar-eremuak, urarekin esperimentatzeko aukera, material solteak (enborrak, makilak...)”.
  6. Hesiak eta muga fisikoak, hala nola eskailerak, lehenbailehen aldatzeko eta jolastokia irisgarriagoa egiteko premia aldarrikatzen dute.
- Beraz, Odon de Apraizkoa ez da ez berrikuntza urbanistikoa, arki-

teknikoa edo pedagogikoa soilik, “berrikuntza sozialerako tresna gisa” ulertzen dute familiek eraldaketa-prozesua. Naturalizazioaren bidez berreskuratu nahi dituzte espazioak, eta “bizikidetzeta eta harreman sinergiak sortzeko baliabidea” dela ikusten dute; “inguruneak aldatzen baditugu eta beste baliabide batzuk jartzen baditugu jolastokian, joko-arauak aldatu egiten dira, eta joko-arauak aldatzen badira, harremanak aldatzen dira”, laburbildu du Saratxok.

Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren laguntzarekin eta Nondik-en dinamizazioari esker mamitu ahal izan zuten. Prozesutik hiru ondorio nagusi atera zituzten, Ahinitze Errasti Nondik arkitektura eta hezkuntza-ikerkuntzako estudio-ko arkitektoaren arabera: “Lehenik, jolastokia, ingurune hezitzailea izateaz gain, hezkuntza-komunitatearen elkargune ere badela; bigarrenik, jolastokia berriro pentsatzeko prozesu parte-hartzaileak ezinbestekoak direla; eta, hirugarrenik, esperientziak partekatzeko foroak behar direla, administrazioa, aditu profesionalak eta hezkuntza-komunitatearen arteko elkarlanerako lekuak eta testuinguruak sortzea”.

### Bost irizpidetan oinarritutako jolastokia

Eskola-komunitate osoak iritzia eman ostean, bost irizpide orokorren gainean papereratu du Nondik-ek

proiektu arkitektonikoa. Elkarbizitza da lehen irizpidea: desberdinen arteko elkarrekintzak sustatuko dituzten espazio inklusiboak eta hezitzaileak behar dituzte; auzoa kontuan izan behar da: auzoko identitateari eutsiz, hirira zabalduko den eskola eta auzoko plaza bilakatuko den jolastokia nahi dute; jolasa aintzat hartu beharreko ardatza da: jolas arautuak berriro pentsatu eta jolas mota guztiak, bereziki sormena bultzatzen dutenak eta kooperatiboak, bultzatuko dituen jolastokia lehenetsi dute; laugarren irizpidea pedagogikoa da: jolastokia ikasgela bilakatzeko aukera askotarikoak eta malguak eskainiko dituen espazioa bilakatu nahi dute; eta, aurreko irizpideak bultzatzeko, natura erdigunean jarri dute: manipulazioa eta esperimentazioa ikaskuntza-iturri gisa eskainiko dituen ataria amestu dute. Berdeguneak, zuhaitzak, baratze handiagoak; jolas-, joko- eta kirol-eskaintza ugariak; lasai egoteko lekuak edota txokoak, horiek guztiak biltzen ditu “makroproiektua” deitzen dioten proposamen arkitektonikoak. Badakite berriro beharreko hori guztia eraldatzeko bidea oso luzea izango dela, eta horrexegatik, hain zuzen ere, proiektua atalka gauzatzen hastea proposatzen du eskola-komunitateak, ezinbestekoak diren lanetatik abiatuta. Abiatzeko, eskolako umeen eta familien irisgarritasuna bermatzea premiazkotzat jotzen dute: “Eskolako



Hezkuntza komunitate osoak hartu du parte prozesuan.

sarrera nagusian eskailerak ditugu — azaldu du zuzendariak —, eta hainbat familiak zailtasunak dituzte eskailera horiek erabiltzeko, aitona-amonak baitira haurren bila etortzen direnak. Hainbeste kostatzen ote da, 35 urteren ondoren, aldapa batzuk jartzea?”.

Oztopoak oztopo eta aurrekontuak muga izan arren, bidean dagoeneko irabazi dutela sentitzen du Odon de Apraizko eskola-komunitateak: “Asko ikasi dugu prozesu honetan guztian hezkuntzaz eta elkarbizitzaz, eta eskola-komunitatea bera proiektu baten inguruan are gehiago elkartzeko tresna izan da jolastokia”, azaldu du Saratxok. Planoetan jarri dituzten amets guztiak osoki lortu bitartean, “mikroproiektuak” egitea gustatuko litzaieke familiei eta irakasleei: “Gauza txikiekin aldaketa handiak egin daitezke”, dio gurasoak. Dinamizazio-kutxak ezarri zituzten, esate baterako, jolaserako materialak eta baliabideak eskaintzen dituzten kutxak, esku-hartze txikiak eginez jolasteko aukerak zabaldu ahal izateko haurrei. “Gatazkak dagoeneko baretu egin dira esku-hartze txiki hauen bitartez”, ondorioztatu du zuzendariak, “eta, ondoren, gelako harremanetan nabaritu egiten da aldaketa”. Ortua jartzen du adibide gisa Agirrezabalak: “Gatazka emozionalak gertatzen direnean edo ume bat gaizki dagoenean, baratzera joateko ohitura hartu dute, eta natura eta baratzera bultzatzea bereziki garrantzitsua da gaur egun, helduak bezala, hainbat ume ukituta daudelako emozionalki, eta baratzera baliatzen dute emozio horiek ateratzeko”. Gaur egun, oso txikia da baratzera, eta hesiz inguratuta dago, eta handitu eta zabaltzeko beharra duen arren, “joko handia ematen du dagoeneko”, Agirrezabalen aburuz.

Martxan dira dagoeneko familiak eta hezitzaileak. Baina nahi baino oztopo gehiago aurkitu dituzte abiatu orduko, Saratxok azaldu duenez: “Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, parte-hartze prozesua bultzatzeaz gain, hainbat esku-hartze egiteko diru-laguntza eskaintzen du, baina, ondotik, Hezkuntza Sailaren ezezkoak jasotzen ditugu horiek gauzatzeko”. Sailen arteko adostasuna eskatzen



dute, eta, era berean, erakundeen arteko elkarlana. Bide horretan, Gasteizko Udalaren parte-hartzea bilatu dute dagoeneko, eta Arabako hiriburuko udalean mahai bat sortu dute hezkuntza-eragileek, jolastokiko batzorde bat sortzeko. Gasteiz berdearen filosofiaren barruan, eta udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak natura hirian sartzeko duen egitasmoarekin bat eginik, ikaste-

txeen birnaturalizazioa bultzatu nahi dute hiriko hainbat eskola publikok. “Hainbat instituziotan begirada aldatzen ari den arren, herritarrak aurretik doaz”, dio Agirrezabalak. Odon Apraizko eskola-komunitatearen erronka elkarrekin lan egitea da: “Familiak irakasleak eta haurrak prest gaude lanerako, baina erakundeek izan behar dute prozesuaren liderrak” dio Saratxok.

## Arabako eskola publikoak eraldaketarako prest

Arabako ikastetxe publikoetan egiten ari diren hausnarketa- eta eraldaketa-prozesuaren adibide da Odon de Apraiz ikastola. Hezitzaileen eta gurasoen gogoetaz gain, haurren hitzari leku egiten ari zaion prozesu bat da Denon Artean Arabako IGE-en federazioak bultzatu duena. Komunitatea erdigunean jartzen duten prozesu eraldatzaileak dira, eta “hezkidetzan oinarritutako eskola-ingurune seguru, osasuntsuak” dituzte helburu. Hainbat batzordetan lan egiten duten guraso taldeak batu dira, eskolak naturalizatzea da haien helburuetako bat, eta hainbat lan-ildo dituzte, hala nola eskolara arteko ibilbideak hobetzea, airearen kutsadura aztertzea, ingurune naturalaren gabeziak gainditzea, jolastokien behar pedagogikoetara egokitzea... Eta, hainbat diagnostiko egin ostean, aldaketak ere planteatu dituzte, bereziki kanpoko espazioen inguruan. “Pentsatzen dugu kanpoko espazioek ikusgarri egin behar dutela haurtzaroko, eskolako eta komunitateko kultura berri bat. Munduari irekitako ispilua izan behar dute, eta koherentziaz jokatu behar dute egitean eta izaitean”, dio euren manifestuak.

Ikusi dute, ordea, prozesu horretan ikastetxe guztiek antzeko zailtasunekin egiten dutela topo: “Administrazioek ez dute arazo hori diziplinarteko eta eskumen mailako ikuspuntu batetik bideratzeko gaitasunik, eta, ezinbestean, izapide burokratiko garesti eta korapilatsuetan galdu gara”. Hori dela eta, “arazo horri ikuspegi orokor eta erabakitzaile batetik heltzeko”, sailen arteko lan-mahai bat eskatzen du Denon Artean federazioak: Eusko Jaurlaritzak (Hezkuntza, Ingurumena eta Osasuna), Gasteizko Udala (Hezkuntza, Berdintasuna, Hirigintza, Parke eta Lorategiak eta Ingurugiro Gaietarako Ikastegia) eta gurasoen elkarteak eta ikastetxeetako zuzendariak. Horrekin batera, ingurune horien eraldaketa pedagogikorako plan estrategikoa eskatzen dute, “epe laburrean aldaketa-prozesu hori lortzea bermatuko duen etengabeko aurrekontu-partida batekin”.

# EKARPENAK 1

BELDUR BARIK PROGRAMA

## Beldur Barik programaren eragina gazteen berdintasunaren aldeko jarreran

Indarkeria sexistari aurre egiteko modu bat baino gehiago daude eta horietako bat da Beldur Barik programa. Emakundeak hainbat erakunderen laguntzarekin antolatzen duen programa honen helburua emakumeenganako indarkeria prebenitzea da, horren adierazpen guztietan. Bide horretan Beldur Barik jarrera bultzatzea eta zabaltzea lortu nahi da. Goiatz Minguez Mugertzak Beldur Barik programaren azterketa egiten du, ezarritako helburuak erdiesten diren ala ez ikusteko, eta hainbat alderdi aztertu ondoren, nerabeek eta gazteek berdintasunaren alde duten jarreran eragina baduela ondorioztatzen du.



**Goiatz MINGUEZ MUGERTZA**  
Gizarte Hezkuntzan graduatua eta berdintasun-teknikaria

**G**azteen arazo larrienak, 2019. urteko Euskadiko Gazteen Egoeraren Diagnostikoak jasotzen duenaren arabera, emantzipazioaren atzeratzearekin loturik daude. Nahiko luketen baino sei urte geroago emantzipatzen ari dira, 29 urte eta erdirekin. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eza ez dago haien arazo nagusien artean,

gaur egungo gizarteak, feminismoak egin duen ekarpena balioztatu beharrean, itxurazko berdintasuna ekarri baitu gurera. Amelia Valcarcelen hitzetan, baliteke emakume belaunaldi oso bat egotea diskriminazioarekiko sentsibilitatea atrofiatua duena, berdintasunaren irudiaz ari bagara, eta horietatik gehienak emakume gazteak dira. Gazteek berdintasuna lortua dagoen gizartea irudikatzen badute ere, indarkeriaren inguruko pertzepzioa desberdina da, eta esan dezakegu gero eta gehiago direla hainbat indarkeria-modu arazo larritzat jotzen dituztenak.

Euskadiko gazteen ustetan, indarkeria forma larriena sexu-harremanak gogoz kontra izatera behartzea da, eta, ondoren, etxetik irtetea debekatzea, mehatxuak egitea, mespretxatzea, erabakiak hartzen ez uztea eta iraintzea. Eta aipagarria da datu hau ere: 15 eta 29 urte bitarteko hiru emakumetik bati beldurra ematen dio herrian edo auzoan gauean bakarrik ibiltzeak. Beldur hori oso baldintzuta dago neskek eta mutilek jasotako sozializazio- eta hezkuntza-prozesuengatik, zeinetan oraindik ere emakumeei gizonen baino neurri handiagoan erakusten zaien beldurra izaten eta adi ibiltzen, erasorik ez jasateko. Hori ulertzeko, ezinbestekoa da emakumeen eta gizonen diskriminazioen oinarri den sexu-generoen sistema

ulertzea. Sistema horretan oinarrituta, bizi garen gizarte patriarkal honek kategoriatan banatzen ditu pertsonak, eta banaketa horrek askotariko desabantailak eragiten ditu. Hau da, sexuan oinarritutako bereizketak emakumei eragiten die gehienetan, eta diskriminazioak sortzen ditu (Izquierdo, 2004).

Azken urteetan, gazteei zuzendutako programa asko garatu dira, eta horien bilakaera nabarmen aldatu da. Hasieran, zabaldutako diskurtsoek edota politikak kutsu asistentziala zuten, eta programak aisiala eta elkartegintzan zentratuta zeuden. 1985. urtean, Nazio Batuek Gazteriarren Nazioarteko Eguna ospatu zuten, eta gazteria-politiken indartzea eta diskurtsoaren aldaketa ekarri du horrek: aisiaz eta gazteen parte-hartzeaz harago, gazteen bizitzari eragiten dioten alderdi guztiak kontuan hartuz bultzatu du (osasuna, lana, kultura, formakuntza, ingurumena, etab.). Gazteria-politiketan bestelako arloekin ere konpromisoak hartzea eta, nola ez, gazteak ere politika horien definizioan eta garapenean inplikatzeko suposatzen du horrek.

Beldur Barik, indarkeria sexistaren prebenitzeko gazteei zuzendutako programa, Berdintasunaren (Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea) baitan sortu zen 2009. urtean. Gaur egun, Emakundek antolatzen du, Berdintasun-eremuan eta hiru Foru Aldundien bultzadarekin batera. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren, UPV/EHUren eta EITBren laguntza du, eta Gazteria Zuzendaritzak ere parte hartzen du.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udalek, azaroaren 25ean ospatzen den Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela eta, elkarlanean antolatzen dute egun horretarako kanpaina. Urterik urte, ahalegina egin da indarkeriari buruzko kanpainetan azaltzen diren estereotipoetatik aldentzeko (indarkeria fisikora eta emakumearen biktima irudira mugatua) eta ikuspegi positibotik heltzeko. Izan ere, beharrezkoa ikusten da emakumeen ahalduntzea bultzatzera bideratutako mezuak indartzea eta herritar guztien

inplikazioa lortzea. Bai eta mutilekin jarrera sexistei aurre egiteko neurriak lantzea eta eraso sexistaren aurrean jarrera aktiboa izan dezaten lortzea ere. Testuinguru horretan sortu zen Beldur Barik programa.

Beldur Barik programaren helburua emakumeenganako indarkeria prebenitzea da, horren adierazpen guztietan. Bereziki, neska gazteek jasaten duten indarkeria. Horretarako, neskei behar dituzten tresnak eta baliabideak ematea du helburu, indarkeria sexistaz ezagutu eta aintzat hartu ahal dezaten. Mutilekin, aldiz, jarrera sexistei aurre egiteko neurriak landu nahi ditu, eraso sexistaren aurrean zeregin aktiboa izan dezaten. Hori aurrera eramateko, gazteekin batera hausnarketarako eta eztabaidarako prozesuak sustatu nahi ditu, hau da, haien artean Beldur Barik jarrera bultzatu.

#### Eta zer da Beldur Barik jarrera?

Kultura matxista eta indarkeria sexistaren adierazpenak eraldatzeko konpromiso pertsonala zein kolektiboa da Beldur Barik jarrera. Alegia, neskek eta mutilek desorekatzeko egoerei aurre nola egiten dieten erakusten duen jarrera. Errespetuan, askatasunean, autonomian, erantzunkidetasunean eta indarkeriaren bazterketa irmoan oinarritzen direnak. Pertsona orok dauka bere burua (eta gorputza) zein bere ingurunea eraldatzeko gaitasuna. Beldur Barik programaren nahia da ahalduntzerako

**Pertsona orok dauka bere burua (eta gorputza) zein bere ingurunea eraldatzeko gaitasuna. Beldur Barik programaren nahia ahalduntzerako eta jabekuntzarako prozesu horietan laguntzea da.**

eta jabekuntzarako prozesu horietan laguntzea.

Beldur Barik programak hori guztia lantzeko hainbat baliabide baditu ere, lehiaketa da programaren ardatza. 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzendua dago, eta haren xedea da ikus-entzunezko produkzioen bidez erakustea neska eta mutilek nola erantzuten duten desberdintasun egoeren aurrean eta nola egiten dioten aurre indarkeria sexistaren adierazpenei Beldur Barik jarrerarekin.



## EKARPENAK: BELDUR BARIK PROGRAMA

**Sexismoaren aurka borrokatzeko, ezinbestekoa da hausnarketa pertsonalerako eta kolektiborako prozesuak sustatzea. Baliagarriak dira, hortaz, Beldur Barik bezalako programa bidez lagundutako prozesuak.**

**Beldur Barik programak izan al du eraginik nerabeek eta gazteek berdintasunaren alde duten jarreran?**

Programak urte batzuk bete dituela baliatuz, planteatutako galderari erantzuteko asmoz ikerketa etnografikoa egin dut, hain zuzen ere, Beldur Barik lehiaketako ikus-entzunezkotan oinarritutako ikerketa. Horietatik jasotako informazioa azterketa-prozesu baten bidez landu da, informazioa kategoriatan eta modu erabilgarrian antolatuz. Hala, informazioa sintetizatuz, datuen deskribapen bat lortzeko eta ikasitako errealitate

soziokulturalaren ulermen sakona egiteko (DEL RINCON (1997). (61)

Ikus-entzunezkoetan parte hartu duten gazteen profilaz gain, kategoria hauexek aztertu dira: identifikatutako sexismo-egoerak, jorratutako diskurtsoak eta landutako prebentzio-estrategiak.

**Parte-hartzaileen profilari dagokionez**, esan dezakegu 12 eta 26 urte bitarteko nerabeen eta gazteen artean hainbat profil aurkitu ditzakegula, gizartean dauden adina profil; hortaz, Beldur Barik lehiaketan parte hartzen duten pertsonak gizartearen aniztasuna islatzen dute. Hala ere, baieztatu dezakegu nerabeen parte-hartzea handiagoa dela, eta litekeena da aurkeztutako lanen atzean ikastetxeek edota espazio sozio-hezitzaileek bultzatutako prozesuak daudelako izatea horrela. Agerikoa da baita ere historikoki nesken parte-hartzea handiagoa izan dela. Neskek gaiarekiko sentsibilizazio handiagoa erakusten dute, seguru asko, haien gorputzetan bizi dituztelako indarkeria sexistak. Azkenik, ondoriozta dezakegu Beldur Barik lehiaketan parte hartzen duten gazteak gaiarekin lotura duten gazteak direla. Bai feminismoa eta indarkeria matxistaren aurkako borrokarekiko interesa edo kontzientzia dutelako, bai parte hartzen duten espazio sozio-hezitzaileetan Beldur Barik programa izan delako indarkeriaren gaia lantzeko erabili duten tresna. Hau da, bideo gehienek atzetik lanketa-pro-

zesu bat dute, eta bideoaren aitzakia erabili dute prozesu horien bidez gaia lantzeko. Prozesua bera tresna hezitzailea izan da, eta bideoa, prozesu horren emaitzetako bat.

**Sexismoaren egoerari dagokionez**, ikus daiteke gazteek indarkeriaren kontzeptua landu dutela eta indarkeria fisikoaz harago doazen bestelako indarkeria motak identifikatzeko gai izan direla. Halaber, besteekin erlazionatzeko moduen inguruan hausnartu dute. Gazteek gaitasun handia erakutsi dute haien egunerokotasunean identifikatzen dituzten sexismo-egoerak plazaratzeko. Egindako hausnarketaren ondorioz, ikasi dute indarkeria ez dela arazo bakartua, eta bidea egin dute indarkeria sexista banakako arazotzat hartu beharrean gizarte-arazo estruktural gisa hartzeko. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta indarkeria sexistaren arteko lotura egitea ahalbidetu die lehiaketarako egindako lanketak. Indarkeriaren jatorria gizartean emakumeen eta gizonen artean dagoen desberdintasunean oinarritzen dela eta horrek dakartzan diskriminazioak egunerokotasunean bizi ditugun egoeretan islatzen direla ikusteko gaitasuna handitu dute. Programak indarkeria identifikatzen laguntzeaz gain, egindako lanek baina, batez ere, horiek egiteko jorratu diren prozesuek indarkeria bultzatzen eta indartzen duten jarrera, jokabide eta mezu sexistak identifikatzen lagundu



dute, eta oso garrantzitsua da hori prebentzioaren ikuspuntutik.

**Landu diren diskurtsoei** erreparaturaz gero, esan dezakegu indarkeria sexista indarkeria fisikoarekin edota indarkeria psikologikoarekin lotzeaz harago joatea lortu duela programak; hau da, indarkeria sexista espezi-fikoki jorratzen duten lanez gain, Beldur Barik lehiaketak lortu du gazteek bestelako ikuspegiak jorratzen dituzten lanak sortzea, batez ere, indarkeria horren egiturazko jatorrien ingurukoak. Nahiz eta orokorrean diskurtsoen bilakaera bat gertatu, horiek errepikatu egiten direla sumatzen da. Hala ere, baieztatu genezake diskurtso sakon eta landuenak gune hezitzaileetan sortutako lanketetatik datozela. Oro har, gazteek Beldur Barik jarreraren erakusle diren diskurtsoak lantzen dituzte. Jarrera aktiboak dira, emakume ahaldunduenak eta gizonei interpelazioa egiten dietenak, egoera horietan haiek ere jarrera aktiboa izan dezaten eta duten ardura ekidin ez dezaten. Hortaz, esan dezakegu lehiaketaren bidez gazteek lortu dutela Beldur Barik programak ezarritako helburua ulertzea eta barneratzea, hau da, biktima/erasotzaile dikotomiatik aldentzea; biktimismoa, kategorizazioa eta estigmatizazioa gaintzea; indarkeria sexistaren egiturazko jatorrietara joatea eta berori gaintzeko eta indarkeriarik gabeko gizarteak eraikitzeko jarrera aktiboak bultzatzea. Indarkeria sexistaren aurkako diskurtsoa osatzen dute, eta berdintasunaren eta feminismoaren aldeko aldarria egiten dute.

Bukatzeko, lantzen diren **prebentzio-estrategiak** aztertuz, hau da, gazteek erabili dituzten esku-hartzeko estrategia sozio-hezitzaileak aztertuz, ondoriozta dezakegu gaur egungo gazteek indarkeria sexistak identifikatzeko eta horiei aurre egiteko estrategia gehiago dituztela. Neskak, oro har, kontzientziatua go daude gai honekin, esan bezala, indarkeria haien gorputzetan bizi dutelako. Alderdi hori erabakigarria da sexismo-egoerak identifikatzeko eta baliabide gehiago izateko, eta baita sexismo-egoera horiei aurre egiteko ere. Ahaldundutze pertsonala bultzatzeko prozesuak erabakigai-



rriak dira nesken kontzientzia-hartzeko prozesuak bultzatzeko. Emakunde jasotzen dituen Marcela Lagarderen hitzetan (2018), emakumeen autonomia, autoestimua eta auto-zaintza garatzen lagundu nahi da prozesu horiekin, emakumeengan genero-kontzientzia sortuz eta horien ongizatea eta osasuna hobetuz. Ahaldundutze kolektiboko prozesuetan, aldiz, eskubideak, baliabideen eta zerbitzuen hobekuntza eta eraldaketa sustatzen dira, emakume batzuen edo guztien beharrei erantzuna eman nahian. Beldur Barik programa ahaldundutze-prozesu horiek ahalbidetzeko tresna baliagarria izan da. Mutilak ere gero eta gehiago batzen ari dira borroka honetara eta, mota honetako programa hezitzaileen bidez, haien eguneroko jarrerak eta portaerak aldatzeko prozesuak bultzatzen dira. Horren ondorioz, mutilek ere jarrera aktiboagoa hartuko dute, eta, indarkeriak identifikatzeaz eta gaitzesteaz gain, horiei aurre egiteko baliabideak eta estrategiak ezagutuko dituzte.

Laburbilduz, ikerketa etnografiko honen bidez ondoriozta dezakegu Beldur Barik programak nerabeek eta gazteek berdintasunaren alde duten jarreraren eragina duela eta lortu duela gazteek indarkeria sexistaren egiturazko jatorrien inguruan hausnartzea eta berori gaintzeko estrategien lanketa bat egitea. Sexismoaren aurka borrokatzeko, ezinbestekoa da hausnarketa pertsonalerako eta kolektiborako prozesuak sustatzea. Baliagarriak dira, hortaz, Beldur

Barik bezalako programa bidez lagundutako prozesuak. Eta programa horiek garatzeko espazio hezitzaileak errazteak bermatu egiten du lanketak eta prozesuak berak aberasgarriagoak izatea.

#### Erreferentzia bibliografikoak

- BILBAO, M.; LONGO, O. eta CORCUERA, N. (2019). *Euskadiko Gazteen egoeraren diagnostikoa*. Gazteen Euskal Behatokia. [https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/diagnostikoa\\_19/eu\\_def/adjuntos/diagnostico\\_2019\\_e.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/diagnostikoa_19/eu_def/adjuntos/diagnostico_2019_e.pdf)
- DEL RINCÓN, D. (1997). *Metodologías cualitativas orientadas a la comprensión*. Barcelona: Universitat Oberta de Catalunya.
- EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea (2018). *EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana*. [https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/emakunde7plana/eu\\_def/adjuntos/vii\\_plana.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/emakunde7plana/eu_def/adjuntos/vii_plana.pdf)
- IZQUIERDO, M. J. (1998). *El malestar en la desigualdad*. Madrid: Ediciones Cátedra.
- OREKA SAREA. (2020). *Análisis de las memorias y de la gestión del programa Beldur Barik (2010-2018)*. [Argitaragabeko dokumentua]. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea. Eusko Jaurlaritza.
- VALCARCEL, A. (2014). *Feminismo en el mundo global*. Valentzia: Ediciones Cátedra.

**Informazio gehiago:**  
[www.beldurbarik.eus](http://www.beldurbarik.eus)

# EKARPENAK 2

JOXE MARI AUZMENDI HEZKUNTZA BEKA

## Iturria agor ez dadin

Joxe Mari Auzmendi hezkuntza bekaren lehen deialdia aurkeztu dute **Hik Hasik** eta Hernaniko Udalak. Auzmendik bere ibilbidean jorratu zituen lau hezkuntza balioen inguruko proiektuak lagunduko ditu Hernaniko Udalak eta **Hik Hasik** sustatuko beka: hobekuntza pedagogikoa; euskara eta euskal kulturaren biziberritzea; herri hezitzailea eta inklusioa.

**H**ik Hasi egitasmo pedagogikoak Joxe Mari Auzmendi hezkuntza beka sortu du Hernaniko Udalaren laguntzarekin, eta dagoeneko lehen deialdia abian da. Auzmendik hezkuntza munduari egindako aitortpena da, eta era berean, hark hasitako ibilbideari jarraipena emateko modua izan nahi du. Izan ere, Auzmendik bere ibilbide osoan jorratu zituen lau hezkuntza balioen inguruko proiektuak lagunduko ditu Hernaniko Udalak eta **Hik Hasik** sustatuko hezkuntza beka: hobekuntza pedagogikoa; euskara eta euskal kulturaren biziberritzea; herri hezitzailea eta inklusioa. Iragan ekainaren 10ean aurkeztu zuten beka Hernaniko udaletxean herriko alkate Xabier Lertxundik, hezkuntza zinegotzi Oier Agirresarobek, Joxe Mari Auzmendiren alaba Izaro Auzmendik eta **Hik Hasiko** Mikel Agirrezabalak eta Ainhoa Azpirotzek.

Hernaniko alkateak aurkezpenean gogoratu zuen bezala, iazko otsailean hil zen Joxe Mari Auzmendi. “Izatez ez zen hernaniarra, baina bere bizitzako urte gehienak Hernanin bizi izan zituen. Hernaniko herria eta Udala zordun zen Joxe Marik egindako bideari jarraipena emateko. Eutsi



Hernaniko udaletxean aurkeztu zuten beka. Ezkerretik hasita, Joxe Mari Auzmendi zenaren alaba Izaro Auzmendi, Xabier Lertxundi alkatea, Hik Hasiko Mikel Agirrezabala eta Ainhoa Azpirotz eta Oier Agirresarobe zinegotzia.

egin genion **Hik Hasik** egindako proposamenari, erakundeoi baitagokigu lan horri jarraipena ematea. Dena den, bekaren eremua ez da Hernanira mugatuko, Euskal Herri osoan ezaguna izan da Joxe Marik egindako lana, eta Euskal Herri osoa uztartu nahi duen beka da”.

2020ko otsailean hil zen Joxe Mari Auzmendi. Baina, iturri agortezina zen egitasmo pedagogikoaren sustatzaile eta arima izan zena, Agirreza-

balak aurkezpen ekitaldian gogoratu zuen bezala: “*Joxe Mari Auzmendi, sekula agortzen ez zen iturria*. Titular hori jarri genuen **Hik Hasi** aldizkarian gure egitasmo pedagogikoaren sortzaile eta bultzatzaile zenaren heriotzaren berri emateko idatzitako erreportaje luzean, 2020ko otsailean. Eta haxe dugu agortzen ez den iturri horren beste adibide bat: pasa den otsailaren 26an, Joxe Mari Auzmendiren omenez Hernanin egin genuen



ekitaldian aurreratu genuen bezala, **Hik Hasi** egitasmo pedagogikoak Hernaniko Udalaren laguntzarekin Joxe Mari Auzmendi hezkuntza beka sortu du”.

Joxe Mari Auzmendik ezaugarri berezi batzuk zituen, kemen eta argi handiko pertsona zen, indar bereziak eta bateratzailea zen, Agirrezabalak gogoratu zuen eran. “Langile porrokatua. Batik bat hezkuntzara bideratu zuen bere lana, baina hezkuntza herri bat josteko hari gisa ulertzen zuen, eta beti balioetan oinarritzen zen. Hala esaten zuen: ‘Hezkuntzak ekarriko du gizarte hobe bat, gizarte justuago bat, orekatuago bat, parekidago eta euskaldunago bat. Baina hezkuntzak eginkizun handi hori beteko badu, bikaina, kalitatekoa izan behar du’. Auzmendiren hezkuntza balioei jarraipena emateko asmoz, eta hezkuntza komunitateari ekarpena egiteko ilusioz, sortu dugu aurkezten dizuegun hezkuntza beka hau, hezkuntza komunitate osoari zabaldua dagoena”.

**Hik Hasiren** izenean eskerrak eman zituen Agirrezabalak: “Joxe Mari Auzmendiren familiari lehendabizi eta Hernaniko Udalari ondoren, erakutsitako babesagatik. Ametsak

egia bihurtzeko, ezinbestekoak dira bidelagunak, eta kasu honetan ere, Joxe Mari Auzmendi hezkuntza beka abian jartzeko ezinbestekoa izan da Hernaniko Udalak eskaini digun babes eta laguntza. Joxe Mari Azkaraten jaio eta Legazpin hazi bazen ere, oso lotua zegoen Hernaniri, Hernaniko herri bizitzari, eta eskertzekoa da, benetan gaur hemen aurkeztu ahal izatea bere izena daraman Hezkuntza beka hau”. Joxe Mari Auzmendirik egindako aitortza eskertu zuen Izaro Auzmendik familiaren izenean, “nahiz eta bera ez zen errekonozimendu zalea”. Eskerrak eman zizkien Hernaniko Udalari eta batez ere herriari.

#### **Lau balio, hasteko**

Lau gai horietako batean (hobe-kuntza pedagogikoa; euskara eta euskal kulturaren biziberritzea; herri hezitzailea eta inklusioa) ardazturiko proiektu bat lagunduko du beka honek. Proiektu berri bat abian jartzeko edota dagoeneko indarrean dagoen bat bultzatu eta bideratzeko izango da eta hezkuntza komunitate osoari zuzendua dago. Euskal Herri osoko ikastetxeak, hezitzaile taldeak, guraso taldeak, aisialdi taldeak, euskara

elkarteak, herri mailan osatutako eragile-taldeak eta abar aurkeztu ahal izango dira. Eragile desberdinen arteko elkarlana hobetsiko da.

Bekaren iraupena bi ikasturtekoa izango da. Eta bekaren zenbatekoa 12.000 eurokoa izango da.

Epaimahaia Hernaniko Udalaren ordezkari batek eta **Hik Hasi** egitasmo pedagogikoko hiru hezkuntza adituk osatuko dute. Hautatutako proiektuari jarraipena egiteko, beti ere proiektuaren ezaugarriak kontuan hartuta, aholkulari pedagogikoa izendatuko du epaimahaia onuradunekin adostuta.

**“Euskal Herri osoan ezaguna izan da Joxe Mari egindako lana, eta Euskal Herri osoa uztartu nahi duen beka da”**

**Xabier Lertxundi,  
Hernaniko alkatea**

# Balioetan aurrera egiteko bekaren oinarriak

## Sarrera

Deialdi honen helburua Joxe Mari Auzmendiren hezkuntza balioei jarraipena eman eta balio horietan oinarrituriko hezkuntzaren eginkizun eraldatzaileak dituen proiektua laguntzea da.

Joxe Mari Auzmendik euskara eta euskal kulturaren, hobekuntza pedagogikoaren, herri hezitzailearen eta inklusioaren inguruan ardatzu zuen bere ibilbidea: “Hezkuntzak ekarriko du gizarte hobe bat, gizarte justuago bat, orekatuago bat, parekideago eta euskaldunago bat. Baina hezkuntzak eginkizun handi hori beteko badu, bikaina, kalitatekoa izan behar du”.

Hezkuntza komunitateari zuzenduriko beka hau Joxe Mari Auzmendik sortu eta gidatu zuen **Hik Hasi** egitasmo pedagogikoak sustatzen du eta Hernaniko Udalak diruz laguntzen.

## 1. XEDEA

Hezkuntza komunitateari zuzenduriko beka hau proiektu berri bat abian jartzeko edota dagoeneko indarrean dagoen bat bultzatu eta bideratzeko izango da. Proiektuak lau eremu hauetako batean kokatua egon behar du:

- **Hobekuntza pedagogikoa**  
Gizartea aldatzen doan neurrian aldatzen da hezkuntza ere. Hezkuntza berrikuntza funtsezkoa da gizarte batentzat, iraganeko gaizki-eginak gaititu eta etorkizun hobe bat eraikitze bidean.

- **Euskara eta euskal kulturaren biziberritzea**  
Euskararen erabilera bultzatzeko eta indartzeko eta euskal kulturaren transmisioa sustatzeko ekimenak izatea. Haur eta gazteen eleaniztasuna sustatzeko bidea euskararen eskutik egitea da helburua, euskara

eta euskal kultura bizitzarako tresna eraginkor bihurtuz.

- **Herri hezitzailea**  
Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko tresnatzat dituen haurren kultura aitorturik, haurrei benetako parte-hartze eta erabakitzeko ahalmena ematea. Haurrek beraiek eraikitako aisi hezitzailearen eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdinak eta parekideak izanez, eta ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartzea da herri hezitzailearen helburua, pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea.

- **Inklusioa**  
Guztiontzat beharko lukeen herri inklusiboa eraikitzeko, oso garrantzitsua da izaera bereziko gaiak lantzen dituzten haur eta familien ongizatea eta balioa aitortzea eta





ikusaraztea. Elkarte, haur eta familia hauek transmititzen dituzten balioak jaso behar ditu hezkuntza-komunitateak, gizarte moduan aberastu eta hezteko.

## 2. IRAUPENA ETA ZENBATEKOA

Bekaren iraupena bi ikasturtekoa izango da.

Bekaren zenbatekoa 12.000 eurokoa izango da. Kopuru horretatik zenbateko bat proiektua bultzatzeko eskainiko den aholkularitza pedagogikora bideratuko da.

## 3. HIZKUNTZA

Proiektua euskaraz landu, idatzi eta aurkeztuko da.

## 4. ONURADUNAK

Hezkuntza-komunitateari zuzendutako beka honetara Euskal Herri osoko ikastetxeak, hezitzaile taldeak, guraso taldeak, aisialdi taldeak, euskara elkarteak, herri mailan osatutako eragile-taldeak eta abar aurkeztu ahal izango dira. Eragile desberdinen arteko elkarlana hobetsiko da.

## 5. ESKAERA EGITEKO EPEA ETA LEKUA

Proposamenak aurkezteko epea 2021eko urriaren 1ean amaituko da eta epaimahaiak, aurkeztutako lanak aztertu ostean, azaroaren 2an jakinaraziko da saritutako proiektua zein den.

Dokumentazio guztia gutunazal batean sartuta honako helbide honetara bidali beharko da: Hik Hasi bulegoa, Errekalde hiribidea 59, Aguila eraikina 1-1. solairua, 20018 Donostia, honako izenburua jarrita: Joxe Mari Auzmendi hezkuntza bekaren lehen deialdia.

Aurkeztu beharreko dokumentazio guztia digitalki ere aurkeztu daiteke,

fisikoki aurkeztu beharrean. Kasu horretan, dokumentu guztiak PDF bihurtu, karpeta bakar batean bildu, eta posta elektronikoz bidali beharko da, honako helbidera: [jmauzmendi-beka@hikhasi.eus](mailto:jmauzmendi-beka@hikhasi.eus)

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe balego edo oinarri hauetan eskatutako baldintzak beteko ez balira, interesdunek hiru eguneko epea izango dute dokumentazioa zuzendu edo osatzeko. Hala egin ezean, eskatzaileak atzera egin duela ulertuko da.

## 6. ESKAERA EGITEKO DOKUMENTAZIOA

Parte hartu ahal izateko honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Eskaera-orria (I. eranskina) behar bezala beteta.

- Proiektuaren nondik-norakoa: izenburua, azalpena, helburuak, lan-lerroak, metodologia, aurrekontua eta lan-plana.

- Parte-hartzaileen (ikastetxea, hezitzaile taldea, guraso taldea, aisialdi taldea, euskara elkarteak, herri mailan sorturiko eragile-taldea eta abar) ibilbidea.

Hau guztia gehienez 15 orrialdetan jaso behar da (DIN A-4 formatua, 12 tamainako hizkia eta ohiko tartea).

## 7. EPAIMAHAI A ETA IRIZPIDEAK

Lau izango dira aurkeztutako lanak aztertuko dituen epaimahaiko ki-deak: Hernaniko Udalaren ordezkari bat eta **Hik Hasi** egitasmo pedagogikoko hiru hezkuntza-aditu.

Epaimahaiak proiektuak ebaluatu eta hautatzeko, honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

- Beka honen xede-atalean jaso diren ezaugarriekin bat egiten duen proiektua izatea (hobekuntza pedagogikoa; euskara eta euskal kulturaren biziberritzea; herri hezitzailea

edota inklusioa).

- Proiektuaren interesa, premia, onura, zuzentasuna eta bideragarritasuna.

Hautatutako proiektuari jarraipena egiteko, betiere proiektuaren ezaugarriak kontuan hartuta, aholkulari pedagogikoa izendatuko du Epaimahaiak onuradunekin adostuta.

## 8. BEKAREN ORDAINKETA

Ordainketa modu honetan egingo da:

- Kopuru osoaren %20 (gehienez) aholkularitza pedagogikora bideratuko da.

- Onuradunak jasoko duen zenbatekoaren %40 proiektua hautatzen den une berean emango da.

- Gainerako %60a bi zatitan ordainduko da onuradunak eta epaimahaiak adostutako epeetan, betiere bekak irauten duen bi ikasturteko epe-mugaren barruan. Ordainketa hauek egin ahal izateko, onuradunak zehaztu egin behar du zer lan egin duen eta zein aurreikuspen eta lan-plan duen hurrengo hilabeteetarako.

## 9. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Honako hauek dira bekaren onuradunak bete beharrekoak:

- Hamar eguneko epean beka onartzen duela jakinaraztea. Aurreikusitako lan-programa ezingo dela bete edo kalitatea ez dela bermatuko jabetuz gero, beka itzultzeko konpromisoa hartzea.

- Bekaren helburuei lotutako lan-programa garatzeko dagozkion jarraipen-saioak egitea epaimahaiko kideekin edota aholkulari pedagogikoarekin.

- Proiektuan aurreikusi eta jasotako helburuak, metodologia eta lanak garatzeko konpromisoa hartzea.

- Proiektua adierazitako epean entregatzea.

# GALDEIDAZU

## ZER DA PRAKTIKA FILOSOFIKOA ETA ZER EKARPEN EGIN DIEZAGUKE HEZKUNTZAN, HEZIKETAN ETA BIZITZAN?

**P**raktika filosofikoa 70eko hamarkadatik gaur egunera arte filosofiari “bira praktikoa” ematen dion mugimendu berria da.

Filosofia mugimendu berri hau, Mendebaldeko zein Ekialdeko antzinako tradizio eta praktika filosofiko klasikoetan inspiratzen da.

90eko hamarkadan, Pierre Hadot filosofo frantsesak, Mendebaldeko antzinako filosofiaz egindako ikerketak argitaratu zituen eta zera azaldu zuen: *filosofia, batez ere, bizitzeko modu bat da* (Hadot, 1995). Antzinako Greziako eta Erromako eskoletan (estoikoak, epikureoak, zinikoak, eszeptikoak...), filosofiaren bidea jarraitzen zuten filosofoek, bizitzeko arteari aplikatutako praktika filosofikoetan trebatzen ziren egunero. Ataraxiaren edo ongizatearen bila, filosofoek egunegun euren bizitza aztertzen zuten, norbere baitan sakon ikertuz. Horren isla da Platonek bere *Apologia* obra dialogikoan Sokratesen ahotan jartzen duen gogoeta: “Azterketarik gabeko bizitza batek, ez du merezi bizitua izatea”.

Iturburu filosofiko-praktiko klasikoari begira baina esanahi, eduki eta forma garaikide propioa emanaz, hainbat filosofo garaikideren lana garrantzitsua izan da egungo praktika filosofikora heltzeko, besteak beste: Friedrich Nietzsche, Spinoza, Pierre



**MIREN CAMISON**  
Praktika filosofikoen web  
atariaren sortzailea  
[www.filosofiafaktoria.eus](http://www.filosofiafaktoria.eus)



Hadot, Michel Foucault, Leonard Nelson, Matthew Lipman, Gerd Achenbach, Marc Sautet, Mónica Cavallé, Oscar Brenifier, Lou Marinoff, Ran Lahav, Michel Onfray eta Martha Nussbaum.

### **Praktika filosofikoak**

Praktika filosofikoaren baitan, tesuinguru kultural eta sozial desberdinetan sortu eta garatu izan diren hainbat praktika filosofiko independente aurki daitezke: haur eta gazte filosofia, filosofia tailerrak (elkarrizketa filosofikoak), kafe filosofikoak, aholkularitza filosofikoa eta filosofia erakundeetan. Horietako bakoitzak corpus teoriko eta metodologia propioa ditu, baina denek elementu orokor komun bat partekatzen dutela esan daiteke: filosofia praktika gisa jorratzea eta dimentsio dialogikoa (elkarrizketa sokratikoa) funtsezkoa izatea.

### **Filosofia, praktika gisa ulertuta**

“Diskurtso filosofikoak ez ditu estatua geldiak zizelkatzen, ukitzen duen guztia aktibo, eraginkor eta bizi bihurtu nahi du. Hastapen bulkadak iradokitzen ditu, ekintza erabilgarriak sortzen dituzten judizioak eta ongia-  
ren aldeko hautuak”.

Plutarko

Praktika filosofikoaren garapen historikoaren lehen fasea 1920ko

hamarkadaren hasieran gertatu zen. Leonard Nelson irakasleak Alemanian, Kant filosofoaren maximari jarraituz, aipatu eta ezarri zuenean, “filosofia ezin da ikasi, filosofatzen bakarrik ikas baitaiteke”.

Nelsonek, maieutika-sokratikoan inspiratuz, metodo bat garatu zuen ikasleek filosofatzen ikas zezaten eta “Sokratisches Gespräch” izena eman zion. Metodologia sokratiko hori ez da filosofia irakasteko artean oinarritzen; filosofatzen irakasteko artean baizik. Nelsonen aburuz, “ikasleengan aurkikuntza filosofikoak serio-ski bultzatu nahi dituen irakasleak, filosofatzeko artea irakasten besterik ezin du egin”. Nelsonek, ikasle bakoitzak bere pentsamendua gara zezan bilatzen zuen.

### Hautzaroan eta gaztaroan filosofia praktikatzaren onurak

*“Filosofia egiteko ereduak Sokrate-sen figura handia da eta harentzat filosofia ez zen lorpen bat, ezta lanbide bat ere, bizimodu bat baizik. Sokratesek irakasten diguna ez da filosofia jakiten, ezta aplikatzen ere, praktikatzen baizik. Desafio egiten digu onartzera filosofia, egite bat den aldetik, bizimodu bat den aldetik, gutariko edozeinek imitatu dezakeen zerbait dela.”*

Matthew Lipman,  
*Filosofia ikasgelan*

Haurrak jaiotzen direnetik ikerlari sutsuak dira eta galdera filosofikoak egiteko joera daukate. Haur eta gazteen galderei hausnarketa emankorra egiteko aukera eskaintzen du haur filosofiaren praktika filosofikoak. Bizitarako garrantzitsuak diren gaiak jorrotuz: maitasuna, heriotza, askatasuna, justizia, edertasuna eta egia, besteak beste. Metodologia filosofikoak nor bere kabuz eta besteekin modu kooperatiboan pentsatzen eta izaten ikastea dakar.

Hurrekin gai filosofikoez hitz egitea beraiekin bizitzaz hausnartzea da. Eta beraiekin elkarrizketa filosofikoak praktikan jartzeak, bizikidetzak hobetu eta kultura demokratikoa sustatzen du. Lipmanek honakoa aipatzen zuen: “Funtsezkoa dugu haurrei beren kabuz pentsatzen nola

irakatsi ikastea, demokrazia baliotsua izan nahi badugu”. Adoktrinamenduaren aurkako praktika filosofikoa proposatzen zuen Lipmanek haur eta gazteen hezkuntzan. Haur eta gazteek beraien pentsamendu kritikoa, sortzailean eta enpatikoan gaitzeko aukerak sortuz, “ikerketa eta elkarrizketa komunitatearen” metodologiaren bidez.

Praktika filosofikoak ikasgelan gure ideiak partekatzea, adieraztea, problematizatzea, arrazoitza eta idaztera eramaten gaitu: galderak eginenez, hipotesiak formulatuz, argudioak ongi eraikiak izan diren ikertuz, kontraesanak eta falaziak identifikatuz, ideiak erlazionatuz eta kontzeptualizatuz. Prozesu horrek guztiak, gure artean sortzen den harremanaren eta egotearen kalitateari ere arreta jartzera eramaten gaitu.

### Entzutea

Elkarrizketa filosofikoaren oinarria entzutea da. Barne isiltasuna eta pazientzia lantzen ikastea, baina hain abiadura handian eta modu hiperaktiboan mugitzen den gizarte honetan, aurkako bidearen ereduak daukagu.

Geure artean ez badiogu elkarri entzuten ezingo dugu benetako elkarrizketa gogoetatsurik sortu eta horrek ez digu utziko aurkikuntza esanguratsurik egiten ere.

Gogoeta filosofikoaren denbora, halabarrez, lasaitasun une bihurtzen da. Gure arreta eta presentzia osoa eskatzen duen ariketan murgiltzen garelako. Praktika filosofikoak, arreta berezia jartzen du entzutearen kon-

tzientzia izaten eta lantzen. Ekialdeko eta Mendebaldeko antzinako filosofia sapientzialek barne isiltasunaren bidez entzutearen garrantzia oroitarazten digute.

Geure burua entzuteko eta besteak entzuteko, asko laguntzen digu gelditzen ikasteak. Baita barne isiltasuna esperimendatzeko eta praktikatzeko ere. Gaur egun, oso gizarte zaratatsuan, bizkorrean, estres-maila handikoan, proaktiboan eta, batez ere, produktibitatean zentratuan bizitara, non harmena balio gisa izateari eta haren praktika erabiltzeari utzi zaion hein handi batean. Horrek, aldi berean, gizartearen sektore batean bizimodu lasaiagoa, erritmo geldoagoa, izate kontzienteagoa, arretatsua eta osoagoa lortzeko irrika sortu du. Praktika filosofikoak ikasketa emozional eta existentzialak ere ekartzen dizkigu, lanketa pertsonalarekin harremana duten bertuteak eta balio etikoak ekartzen dituen praktika baita: presentzia, arreta, isiltasuna, errespetua, pazientzia, konfiantza, begirunea, parte-hartzea, ardura, pentsatzearen esfortzuarri ekitea, ziurtasunak baztertzea, apaltasuna, berdintasuna, malgutasuna eta sinesmenak eta iritziak zalantzan jartzeko ausardia izatea, besteak beste.

### Izatea, bizitza hobe baterako filosofia

*“Besteak ezagutzen dituenak, azkarra da. Bere burua ezagutzen duena, jakintsua da”.*

Lao-Tse

Antzinako Greziako eta Erromako



Elkarrizketa-prozesuan, filosofo praktikoak galderak egiten ditu pentsamendu sakonagoa eta zorrotzagoa eskatuz, eta bide horretatik lor daiteke ideiak argitzea, kontzeptuetan sakontzea, pentsamendu akatsak detektatzea edo orain arte aintzat hartu ez diren aukera berrietara begirada eta ulermena zabaltzea.

filosofoek, filosofia bizitzaren arte gisa praktikatzeko zuten, izatearen arte gisa, doktrina teoriko gisa baino gehiago. Hortik abiatuz, egungo aholkularitza filosofikoak, pertsona bakoitzak bere burua ezagutzeko eta eraldatzeko duen gaitasunean jartzen du indarra, bai eta bere kudeaketa emozionala eta intelektuala zabaltzeko ere.

Gerd Achenbach aholkularitza filosofikoaren aitzindaria eta sortzailea izan zen. 1981ean, filosofian doktore zen gazte honek Praktika Filosofikoa eta Orientaziorako Institutua sortu zuen. Baita kabinete partikularra ireki ere, *ikerketak filosofiko* bateratu baten bidez, beren bizitzetan orientazioa bilatzen duten pertsonen laguntzeko. Ideia eta ekintza horrek antzinako Greziako eta Erromako tradizio filosofiko klasikora eramaten gaitu berriro, non filosofia pentsamendu, bizitza eta harreman komunitarioaren bizipen gisa praktikatzeko zen.

Achenbachek “*Philosophische Praxis*” neologismoa sortu zuen, filosofo praktikoak bere lanbidean jardun askea garatzeko aukera aldarrikatuz. Eta neologismo horrek eman dio izendapena gaur egun filosofiaren baitan sortu den mugimendu berri honi. Gaur egun Mónica Cavallé filosofoak aholkulari gisa lan egiten du eta bibliografia zabala argitaratu

du aholkularitza filosofikoaren teoria eta metodologiaren inguruan.

## Hiritartasun sortzailea eta kritikoa sustatzen

Filosofoa kalera irteten da, agorara edo plaza publikora, eta adin askotariko pertsona taldeekin eta ingurune errealitate zalantzan jartzeko interesa duten herritarrekin hitz egiteko prest azaltzen da. Elkarrizketa filosofikoaren praktika, bizitzako espazioetan txertatzen da, antzinate klasikoan gertatzen zen bezala. Filosofoek, *kafé filosofikoak* —informalak— edo *tailer filosofikoak* —formalak— gidatzen dituzte.

Egun, elkarrizketa filosofikoak kultur esparruetan topa daitezke: liburutegietan, kultur guneetan, arte-galerietan nahiz museoetan, baina baita espazio sozial informaletan ere, besteak beste, ospitaletan, kafetegietan, tabernetan, terrazetan zein natura eta hiri guneko espazio irekietan.

Kafé filosofikoek bat-bateko sorrera bitxia izan zuten. 1992an, Marc Sautet Pariseko Unibertsitateko irakasleak, irratian egindako elkarrizketa batean komentatu zuen, lagun batzuekin biltzen ohi zela igande goizero Bastilla Plazako kafé batean filosofatzeko. Eta zein izango zen bere harridura, hurrengo igandean, eztabaida filosofiko informal hartan parte hartu nahi zuten pertsona ugari bertaratu zirela egiaztatu zuenean. Pixkanaka, gero eta jende gehiagok parte hartu nahi zuen eta oinarritzko arau batzuk bilatu behar izan zituzten, jende gehiegi etortzen hasi zelako. Pixkanaka, ekimen horiek ugarituz eta birsortuz joan ziren.

Behin kafé filosofikoak sendotuz joan zirenean, eskakizun eta zorrotasun filosofikoa areagotzeko beharra sortzen hasi zen jendearen artean. Horrela sortu ziren tailer filosofikoak, esku-hartzearen exigentzia filosofikoa areagotuz eta metodologia hobetuz. Oscar Brenifier frantziar filosofoa izan zen praktika ildo hau garatu zuen lehena.

## Filosofatzea

Filosofatzea elkarrizketaren bidez filosofiaren tradizio maieutiko sokratikoa berrezartzea eta praktikan jartzea da.

Pertsona-talde batek gai filosofiko zehatz bati buruz elkarrekin ikertzeko konpromisoa hartzen du; pertsona bakoitzak bere iritzi nahiz bizi-esperientzia bestelako iritzi eta mundu ikuskerekin aurrez aurre jartzen ditu. Elkarrizketa-prozesuan, filosofo praktikoak galderak egiten ditu pentsamendu sakonagoa eta zorrotzagoa eskatuz, eta bide horretatik lor daiteke ideiak argitzea, kontzeptuetan sakontzea, pentsamendu akatsak detektatzea edo orain arte aintzat hartu ez diren aukera berrietara begirada eta ulermena zabaltzea.

## Bide-laguntza filosofikoa hazieran eta hezkuntzan

Filosofia Faktoria euskarazko praktika filosofikoen web atarian, ildo berria landu eta eskaintzen zaie guraso eta hezitzaileei zuzendutako “taldekako bide-laguntza filosofikoa hazieran eta hezkuntzan” atalean.

**Hezitzaileentzako taldekako bide-laguntza filosofikoa:** ikastetxean sor daitezkeen gaizki-ulertuak eta bizikidetzak gatazka irakasleen, ikasleen, irakasle-ikasleen, jangelaren eta familien artean abiapuntutzat hartuta, ezaugarri filosofikoak dituen bide-laguntza proposatzen da. Elkarren arteko ulermen- eta konfiantza-esparrua sortzeko; elkarrizketa filosofikoa, entzutea, barne-isiltasuna eta komunikazio enpatikoaren bidez lan egiten da. Tentsioak modu ulerkor, lasai eta sortzailean konpon daitezkeen zainduz.

**Gurasoentzako taldekako bide-laguntza filosofikoa:** etxean gurasoen eta seme-alaben arteko bizikidetzan sortzen dira bizitza osorako lotura maitagarriarekin batuko gaituzten sentimenduak, baina baita hainbatetan kudeatzeko prest ez gauden desadostasunak eta gatazka ere.

Gurasoentzako taldekako bide-laguntza filosofikoko tailer honetan, gure esperientziatik abiatuta, eguneroko bizikidetzan identifikatzen ditugun era guztietako egoera gatazkatuak eta erronka pertsonalak jorratzen dira. Elkarrizketa filosofikoaren bidez galdera esanguratsuak egiten dira sakonki eta konplazentziarik gabe ikertzeko, horrela gure ulermen sakonenean ezkutuan geratzen den horri argitasuna emanez.

# ARGITALPENAK



## OROIMENEZKO IGANDEAK

Ainara Maia

### DAKIT

Kattalin 18 urteko Ipar Euskal Herriko gaztea da protagonista. Urtebeterako Alemaniara joan da alemana ikastera eta lehengusuak oparitu zion egunerokoan igandero hutsik egin gabe urtebete horretako bizipenak idatziko ditu: hizkuntzarekin dituen arazoak, inkomunikazio egoerak, lagun berriekiko harremanak eta abar.




## NOR NAIZ NI?

Tandem Seceda - Ester Garcia

### KALANDRAKA

Animaliak ezagutzeko bilduma berri bat argitaratu du Kalandrakak. Liburu honetan Afrikako animalien kumeek euren burua aurkezten dute, nolakoak diren eta nola bizi diren azalduz eta ondoren, "nor naiz ni" galdetuz. Jolas horretan irakurleek haien sekretuak ezagutzeko aukera ere badute. Natura maite dutenentzako liburua.



## AMAIA LAPITZ ETA FESTOSEKO DISKOA

Katixa Agirre - Alex Orbe

### ELKAR

Amaia Lapitzen bildumako azken liburuan Amaia Lapitz udalekuetan dagoela, Ariane laguna bahituko dute. Amaiarekin nahastuta eramango dute, ordea, eta lagunaren arrastoari jarraituz iritsiko da Egeo itsasoko Greziako uharteetara. Han ezagutuko dute Kretako Minotauroaren istorioa.



## ETA UNTXIAK ENTZUN

Cori Doerrfeld

### TXALAPARTA

Ezuste desatsegin baten ondoren, Taylorrek ez daki norengana jo. Animalia guztiek uste dute berek dutela irtenbide onena eta banan-banan nola jokatu esaten diote Taylorri, baina huts egiten dute kontsolamendua ematen. Untxiak, ordea, entzun eginen du, ez besterik... hain zuzen Taylorrek behar duen hori. Inguruko nola lagundu eta mina nola arindu kontatzen digu.



## SOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIA, 118

Zenbaiten artean

### SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

Zenbaki honetan Iparraldean euskarak dituen indarguneak eta ahuleziak aztertzen dira. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan indarrean diren eztabaida eta errealitate batzuk jasotzen dira, horien baitan hamai-k errealitate daudela ahantzi gabe. Euskararen transmisioa eta erabilera, hanka biak garatzeko espazioak eta aukerak bilatzeko ahalegina da.



## GOGOETA, 22

Zenbaiten artean

### EHU

Ale honetan Saul Kripke filosofo estatubatuarren bi artikulua original eta hitzaldi bat biltzen dira: Michael Devitten "Gogoeta batzuk Naming and Necessityri buruz" eta Maria de Ponteren "Kripke, Perry eta ni" artikulua, eta N&N Kripkeren bigarren hitzaldia. Hiruren oinarrian dago filosofoaren Naming and Necessityri lotutako ideiak eta hausnarketak.

# PROPOSAMENA

## Gernikako Bakearen Museoa

### Euskal Herriko historia ikasteko modu berriak

Gernikako Bakearen Museoak Espainiako Gerra Zibila eta Gernikako bonbardaketa lantzeko material didaktikoa sortu du. 14-15 urtetik gorakoei zuzentzen zaie, gazte zein helduei. Gai gogorrak izanik ere, jolasaren, umorearen eta ikerketaren bidez jorratu nahi izan dituzte. Helburu nagusia gure herriko historia hurbila ezagutzeko da, egileek diotenez, nondik gatozen jakitea, nora joan nahi dugun erabakitzeko.

**E**uskal Herriak bere historian bizitako bi une garrantzitsu bildu dituzte material didaktiko batean, Gernikako Bakearen Museoa. Zehazki Espainiako Gerra Zibila eta Gernikako bonbardaketa lantzeko materiala sortu dute museoko langileek.

Gerra Zibilaren gaia erakargarriagoa izan dadin, bineten bidez erakutsi dute. Ideia erakusketa batetik hartu zuten: “OROIMENERAKO BINETAK. Euskadin gerrak iraun zuen garaian Bilboko egunkarietan argitaratutako binetak (1936-37)”. Umorea oso tresna baliagarria izan zitekeela otu zitzairen, Idoia Orbe Narbaiza Gernikako Museoko hezkuntza-arduradunaren hitzetan: “Umorea oso baliabide erakargarria da historia ikasteko, eta oso erabilia da egunkari guztietan, XIX. mendetik hona”.

Binetatatik abiatuta, jolasa proposatzen dute gertaera historikoa ezagutzeko tresna gisa: jolasetan edo gamifikazioan oinarritu dira gaiak



Garrantzi handia eman diote zuzeneko lekukotasunak erabiltzeari, *fake news*ak ekiditeko modu bat dela jakinik.

aztertzeko. “Batetik, Euskadiko egoera nolakoa zen ulertuko dugu, gerran parte hartu zuten pertsonaia batzuk aztertuz, eta, bestetik, garai-ko mugimendu artistikoak landuko ditugu, marrazkilari edo binetagineen marrazteko estiloak jorratuz”, azaldu du Orbek. Hala ere, materialaren

egileek leku berezia eta denbora asko eskaintzen dizkiote hausnarketari prozesu guztian zehar. Sinetsita daudelako gazteek badutela behar besteko heldutasuna eta, horren ondorioz, hausnarketa behar-beharrezkotzat ikusten dutelako hezteko prozesuan. Gernikako bonbardaketaren mate-



Material didaktikoan Gerra Zibilak iraun zuen bitartean Bilboko egunkarietan argitaratutako hainbat bineta bildu dira, umorea baliabide erakargarria izan daitekeelako historia ikasteko.

riala ikerketa baten bidez aztertzea proposatzen dute. Hiru rol daude aukeratzeko: lekukoarena, kazetaria-rena eta marrazkilaria-rena. Lan kooperatiboa izango da, hiruko taldeetan banatuko baitira parte-hartzaileak, eta, azkenean, ikerketaren emaitza aldizkari baten eranskinaren itxurakoa izango da.

Museoko hezkuntza-arduradunaren ustetan, Gernikako bonbardaketa gai polemikoa da oraindik ere: “Bai gaur, bai lehen, gizarteari komunikabideetan azaltzen diotena ez da beti zuzena izaten, edo informazioaren parte bat baino ez da ematen, eta, beste batzuetan, gezurrak saltzen dituzte. Gernikaren kasua oso adierazgarria da, eta eredutzat erabil daiteke altxamenduaren aldeko matxinatuen bertsioa, *fake news* edo informazio faltsuaren adibide modura. Jakin badakigu Interneten material ugari aurkitu dezakegula, baina gai izan behar dugu informazio egokia aurkitzeko eta okerrak baztertzeko”.


*Fake news*ak ekiditeko bide bat da zuzeneko lekukotasunak erabiltzea, eta, hain zuzen, garrantzia ematen diote baliabide horri, horretarako, onbardaketa zuzenean bizi zutenek urte hauetan guztietan eskaini dituzten lekukotasunen bideoak baliatu dituzte, eta Interneten jarri dituzte ikusgai.

### Museoko langileek sortua

Bi gaiak lantzen dituzten materialak 14-15 urtetik gorakoei zuzentzen zaizkie. Biak ala biak Gernikako Bakearen Museoko langileek sortuak dira, nahiz eta Gerra Zibilaren kasuan laguntza berezia izan zuten hasieran: “Gerra Zibila bineten bidez lantzeko materialaren kasuan, hasierako ideiak ateratzeko, erakusketaren komisarioaren laguntza izan genuen, Aline Soberonena, baina, handik aurrera, beste guzti-guztia museoko lantaldeak egin zuen. Bonbardaketako materialari dagokionez, berriz, museoan egin dugu lan guztia, ideiak ateratzetik diseinuraino”, dio Orbek.

Material guztia sortzeko, museoak bisitari gutxiago jaso duen denboraldia baliatu dute, bai eta itxita egon den tarte ere. COVID-19aren eraginez kalera ateratzerik ez zegoenez eta ondorenean oso zaila izanenez museoetara joatea, lekuak ezagutzeko eta abarretarako eskola-taldeekin txangoak egitea, materiala online lantzeko prestatu dute, edozein lekutatik erabili ahal izateko. Bi materialek aukera ematen dute atal batzuk gelan eta beste batzuk etxean jorrazteko, material gehigarri asko baitago sakontzeko ere.

Helburu nagusia gure historia hurbila ezagutzea dela uste du Orbek,



### Zer da?

Espainiako Gerra Zibila eta Gernikako bonbardaketa lantzeko material didaktikoa

### Nork egin du?

Gernikako Bakearen Museoa

### Non aurkitu daiteke?

[www.museodelapaz.org](http://www.museodelapaz.org) webgunean  
[hezkuntza.museoa@gernika-lumo.net](mailto:hezkuntza.museoa@gernika-lumo.net)

### Nori zuzentzen zaio?

14-15 urtetik gorako edonori

“nondik gatozen jakitea nora joan nahi dugun erabakitzeko”. Gerra Zibila ikasturtearen amaieran ematen den gaia izaki, batzuetan gutxi sakontzen den gaia, denbora faltagatik askotan. “Gure iritziz, gure historiako oso atal garrantzitsua da gaur egungo egoera eta politika ulertzeko, eta baita gure aitona-amonak bizi izan zutena ezagutzeko ere. Gure familiaren historia aztertzeak eta ezagutzeak geure burua hobeto ezagutzen lagunduko digu, eta, kasu askotan, beste herrialde batzuetan gertatzen denarekin ere enpatia sorraziko digu”.

Informazio guztia Gernikako Bakearen Museoko webgunean aurkitu daiteke. Hala ere, webgunera sartu gabe esteka guztiak eskura izan nahi dituenak museoko hezkuntza-arloa idatz dezake, eta berehala bidaliko diote informazioa: [hezkuntza.museoa@gernika-lumo.net](mailto:hezkuntza.museoa@gernika-lumo.net)

Museoko hezkuntza-arduradunak eskaera bat luzatu die erabiltzaile guztiei: haien iritzia bidaltzea materiala erabiltzen dutenean [hezkuntza.museoa@gernika-lumo.net](mailto:hezkuntza.museoa@gernika-lumo.net) helbidera. “Eta animatzen badira, bonbardaketaren ikerketa egiten duten ikasleek eranskinak bidaltzea eskertuko genuke, gure helburuak egoki bete diren ala ez egiaztatzeko”.

# ATZEKO ATETIK



## JOXEMAI, AMETSEK SENDO DARRAITE

JOXEMARI AGIRRETXE 'PORROTX'  
PAILAZOA

**K**aixo lagun, aspaldiko!  
Laster urte t'erdi egingo du hil zinela eta zure sentimenduak, pentsamenduak eta ekintzak inoiz baino presenteago daude gure bizipenetan, **Hik Hasi**k 25 urte bete dituen honetan. Aldizkariaren proiektua martxan jarri eta gutxira ezagutu genuen elkar, jolasteko abestiak eta bideoak grabatzeko egitasmo ederraren bueltan, haurrak eta helduak elkarrekin jolasean aritzeko sortutakoa. "Jolasa, denon arnasa", ederki pasatu genuen lagun!

"Hartu amets bat eskuetan eta segi haren atzetik" zenioen alabei eskainitako olerkian. Eskutan ametsak bakarrik ez, jostorratza eta haria ere hartu zenituen eta jostun bihurtu. Eta josi eta josi elkartu zenituen haurrak, familiak, eskolak, sareak, eragileak, herriak... Olerkia bizimodu bihurtu eta Euskal Herritik Euskal Herria bera eta mundua eraldatzeko ametsari jarraiki izokin bihurtu ginen eta saltoka munduko txoko ezberdinetako ekarpenak jaso genituen. Estonia, Finlandia, Italia, Kuba, Galizia,

Katalunia... Horrela gonbidatu zenuen gurera, Erromaraino joanda, Francesco Tonucci eta herri hezitzaileen proiektua abian jarri. Zer poza, Joxemai! Dozenatik gora eragile gaude elkarlanean Oinherrin eta hamarnaka dira dagoeneko herri hezitzaileen sarera batu direnak, amets eraldatzaileak eskuetan hartuta.

Bizipozaz beste hainbeste esan genezake. Munduak guztiontzat behar duela sinetsita dozenaka bazkide, elkarte eta boluntariok dihardugu eskutik helduta. Informazioa eta sentsibilizazioa, baloreen transmisioa, laguntza eta formazioa, aldarrikapenak... denona eta denontzat izango den Euskal Irria eraikitzen. Eta Bizipoza bizipoztuz zu eta **Hik Hasi** burubelarri. Kotxe-bilerak, paseo-tertuliak, bilera-bilerak... eta elkarren zaintza, goxo, gertu.

Hezkuntza proposamena ere abiatu zenuen eta dagoeneko ari da bidea egiten. Zenbat puntada kolore eta tamaina ezberdinetako oihalkiak josten? Arduraz bizi zenuen egungo sistema eta honek pairatzen dituen ahuleziak, mendekotasunak eta zatiketak. Eta

ardura horretatik eta komunitatearen indarrean sinestuta jarri zinen aurrea begira. Muxuka baina egurra, e, Joxemai?

Eta orain, Joxemai, pandemiaren garai hauetan, arbolak banatzen ari gara herriz herri sudurgorriok. Haiek landatuz eta zainduz gure artetik joan zaizkigun senide, lagun eta herrikideen bizipenak eta balioak partekatze-ko asmoarekin, baita zureak eta orain zortzi urte agurtu genuen Arantza Goiburua **Hik Hasi**ko bidelagunarenak.

Amets guztiek, Joxemai, maite zaitugunon eskuetan sendo darraite, **Hik Hasi**ko lantalde ederra indartsu eta gogotsu ari da etorkizuna marrazten, enborra sendo, adarrak zabal eta kimuak loratzen. Zure arbolaren gerizpean, biribilean, malkoak isuri genituen leku berean, irribarrea sortzen zaigu dagoeneko zurekin oroitzean.

Beno lagun, zuk zenion bezala, **hil arte bizi!**

Sentitu, pentsatu, ekin... beti elkarrekin!

Joxemaiiiiiiii!!!

2020-2021 IKASTURTEA

# AZKEN EBALUAZIOA



**IKASTURTEAN IREKITA IZAN DIREN GELEN BATEZ BESTEKOA %99,28**

Euskal hezkuntza-komunitatea osatzen duten milioi bat lagun baino gehiagoren konpromiso eta ahaleginari esker, 20-21 ikasturteko ikasgairik zailena nota bikainez gainditu da.

**ZORIONAK ETA ESKERRIK ASKO**

*Euskadi, auzolana*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

# 2021-2022 ikasturte osorako Hik Hasiren formazioa

## 0-6 ETAPAKO ADITU-TITULUA

- Zaintzaren garrantzia (Pikler)
- Pedagogia eraldatzaileak

Bi ikasturteak edota bakarra egiteko aukera dago zabalik. Hiru titulazio eskaintzen dira:

- 0-6 etapako aditu titulua, zaintzako eta pedagogia eraldatzaileetako espezialitateetan. (2 ikasturte)
- 0-6ko aditu titulua, zaintzako espezialitatean.
- 0-6ko aditu titulua, pedagogia eraldatzaileetako espezialitatean.



## PSIKOMOTRIZITATE ERLAZIONALA



Mapi Urresti

## JIRAFAREN HIZKUNTZA

Komunikazio Ez Bortitza  
9 saio online



Nerea Mendizabal

## PEDAGOGIA SISTEMIKOAN HEZI ETA BIZI



Larritz Mendizabal  
eta  
Aitziber Esnaola

Formazio homologatuak

[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)